Zergadun hori :

2011ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitortzeko kanpainak, 2012ko apirilaren 17an abiatuko denak, zenbait berrikuntza dakar iaz egindako aitorpenaren aldean. Jarraian, laburbilduko dugu zein ezaugarri nagusi dituen esandako zergak urte horretarako. Argibide gehiago behar izanez gero, ondoko hauek erabil ditzakezu:

- Aitorpen inprimakiaren jarraibideak.
- Gidaliburua, gure web orrian.
- Interneteko helbide hau: www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta.
- 902 100 040 arreta telefonoa, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Adeitasunez, agur.

Donostia, 2012ko martxoaren 1a

Helena Franco Ibarzabal

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua

**Zergadunaren arreta zerbitzua**
*** Telefonoa (08:00etatik 15:00etara):** 902 100 040
*** Internet :** www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

# 2011rako ERRENTA ZERGAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Errenta salbuetsia | **Desgaitasunagatik jasotako prestazioak** | | • Gizarte Segurantzak edo honen ordezko entitateek erabateko ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasun handiagatik zergadunari ordaindutakoak. Baita ere ezintasun iraunkor osoagatik jasotakoak, honako hauek betez gero: 55 urte baino gehiago izatea eta lanarengatik edo jarduerengatik 600 eurotik gorako diru sarrerarik ez lortzea, lehenengo urtean izan ezik.<br>• Era berean, salbuetsita egongo dira zahartasun eta elbarritasunari buruzko derrigorrezko aseguruaren pentsioak (SOVI delakoarenak), euren zergatia zergadunaren elbarritasuna denean. |
| | **Prestazio publikoak eta Gizarte Segurantzarenak** | | • Zurztasun pentsioak eta prestazio familiarrak. |
| | **Langabezia prestazioa** | | • Ordainketa bakarreko modalitatean. |
| **Etekin irregularrak (lana, kapitala, jarduerak)** | | | • 2 eta 5 urte bitartean: %60<br>• 5 urte baino gehiago: %50<br>• Erregelamenduz irregulartzat kalifikatuak: %50 (lan harremana uztea adostua izanez gero lehenengo 60.000 euroei %40). |
| Lanaren etekinak | Hobaria | **Orokorra** | • Sarrerak– gastu kengarriak < 7.500,00 €: 4.650,00<br>• Sarrerak – gastu kengarriak 7.500,01 € eta 15.000,00 € bitartean badaude: 4.650,00 € - [0,22 [(Sarrerak – gastu kengarriak) – 7.500,00 €]<br>• Sarrerak – gastu kengarriak > 15.000,00 €: 3.000,00 € |
| | | | • Bestelako errentak > 7.500,00 €: 3.000,00 € |
| | | **Minusbalia-tuentzat gehitua** | • %100: langile aktibo desgaituen minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean. |
| | | | • %250: langile aktibo desgaituen minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean, mugikortasun murriztua badute, eta orobat, langile aktibo desgaituen minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa denean. |
| Murrizpena mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei, eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei ekarpenak egiteagatik | | **Orokorra** | Mugak:<br>• Enpresaren kontribuzioa: 8.000,00 €<br>• Zergadunaren ekarpena: 8.000,00 € |
| | | **52 urtetik gorakoentzat** | Mugak:<br>• Enpresaren kontribuzioak: 8.000,00 €+ 1.250,00 €, 52 urteko adina gainditzen den urte bakoitzeko<br>• Zergadunaren ekarpenak: 8.000,00 €+ 1.250,00 €, 52 urteko adina gainditzen den urte bakoitzeko |
| | | **Ezkontidearen edo izatezko bikote-laguna-ren alde (1)** | Mugak:<br>1) Ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren oinarri ezargarri orokorraren errentak (1) < 8.000,00 €<br>2) 2.400,00 € |
| | | **Minusbalia-tuen alde** | Mugak:<br>1) 8.000,00 €(ahaideek egindako ekarpenak)<br>2) 24.250,00 €(minusbaliatuak berak egindako ekarpenak) |
| **Murrizpena batera tributatzeagatik** | | | - Orokorra: 4.033,00 €<br>- Guraso bakarreko familia: 3.503,00 € |

**Tarifa — Orokorra**

| 2011 | | | |
|---|---|---|---|
| Oinarri likidagarria | Kuota osoa | Oinarri likidagarriaren gainerakoa | Tasa (%) |
| 0,00 | 0,00 | 14.860,00 | 23,00 |
| 14.860,00 | 3.417,80 | 14.860,00 | 28,00 |
| 29.720,00 | 7.578,60 | 14.860,00 | 35,00 |
| 44.580,00 | 12.779,60 | 19.100,00 | 40,00 |
| 63.680,00 | 20.419,60 | Hortik aurrera | 45,00 |

**Tarifa — Aurrezpena:** %20

| | |
|---|---|
| **Kenkari orokorra** | • Zergadunek 1.327 euroko kenkaria izango dute urtean. Autolikidazio bakoitzeko egingo da kenkari hau. |
| **Jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria** | • Zergadunek 400,00 euroko kenkaria izango dute urtean, baldin eta beren oinarri ezargarria 15.000 eurokoa edo txikiagoa bada. Oinarri ezargarria 15.000 euro baino handiago eta 20.000 euro baino txikiagoa bada, 400 euroko kopurutik OEren eta 15.000 €-ren arteko diferentziaren 0,08 kenduko da. Autolikidazio bakoitzeko egingo da kenkari hau. |
| **Langabetuen eta pentsiodunen konpentsazio kenkaria** | • Zergadunek kontzeptu horiengatik jasotako %1eko kenkaria izango dute, baldin eta beraien Oinarri Ezargarria (Oinarri orokorra + Aurrezpen Oinarria) 20.000 eurotakoa edo gutxiagokoa bada. Autolikidazio bakoitzeko praktikatuko da kenkari hau. |

**Kenkari pertsonal eta familiarrak**

| | |
|---|---|
| **Ondorengo ahaideengatik** | |
| - Lehenengoa | 558,00 € |
| - Bigarrena | 691,00 € |
| - Hirugarrena | 1.168,00 € |
| - Laugarrena | 1.380,00 € |
| - Bosgarrena eta hurrengoak | 1.804,00 € |
| - Gehikuntza: 6 urtetik beherakoengatik | 319,00 € |
| **Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik** | %15 |
| - Lehenengoaren muga | 167,40 € |
| - Bigarrenaren muga | 207,30 € |
| - Hirugarrenaren muga | 350,40 € |
| - Laugarrenaren muga | 414,00 € |
| - Bosgarrenaren eta hurrengo bakoitzaren muga | 541,20 € |
| **Aurreko ahaideengatik** | 266,00 €<br>• Zergadunarekin bizi denean edo honek egoitza bati diru kopuruak ordaintzen dizkionean aurreko ahaidea bertan bizi dadin etengabe eta modu jarraituan. |
| **Kargupean hartu den 65 urteko edo hortik gorako pertsona desgaituagatik, besteen laguntza behar duenan** | Zergaduna, aurreko edo ondorengo ahaidea, ezkontidea, izatezko bikote-laguna (1) edo zeharkako ahaidea, laugarren mailaraino, hau barne, desgaitua denean, edo 65 urteko edo hortik gorako pertsona desgaitua zergadunarekin bizi eta aurreko ahaide edo asimilatuen zerrendan sartuta ez dagoenean:<br>• ≥ %33 eta < %65: 867,00 €<br>• ≥ %65: 1.224,00 €<br>• ≥ %75, 15 eta 39 puntu bitartean lortuz hirugarren pertsonen laguntzagatik: 1.428,00 €<br>• ≥ %75, 40 puntu edo gehiago lortuz hirugarren pertsonen laguntzagatik: 2.040,00 € |
| **Mendekoak izateagatik** | Zergaduna, aurreko edo ondorengo ahaidea, ezkontidea, izatezko bikole-laguna (1) edo zeharkako ahaidea, laugarren mailaraino, hau barne, mendeko pertsona denean. Baita ere, mendeko pertsonak 65 urte edo gehiago dituenean eta zergadunarekin bizi izanik aurreko ahaide edo asimilatuen zerrenda sartuta ez dagoenean.<br>• Mendekotasun txikia: 1.224,00 €<br>• Mendekotasun ertaina: 1.428,00 €<br>• Mendekotasun handia: 2.040,00 € |

# 2010EKO ERRENTA ZERGAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

| | | |
|---|---|---|
| **Zergadunaren adinagatik** | | • 65 urtetik gora: 319,00 €<br>• 75 urtetik gora: 584,00 € |
| **Egoera pertsonal eta familiarraren zehaztapena** | | • Zirkunstantzia pertsonalak zergaren sortzapen egunean dagoen egoera kontuan hartuz zehazten dira (normalean, abenduaren 31n).<br>• Kenkari pertsonal eta familiarrak konputatzeko, kalkulua ez da inoiz ere egingo kenkariak aplikatzeko exijitutako zirkunstantziak urte naturaleko zenbat egunetan gertatu diren kontuan hartuta.<br>• Kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsona hil bada, zirkunstantzia pertsonalak pertsona horren heriotza egunean dagoen egoera kontuan hartuz zehazten dira. Kenkarien zenbatekoa ez da egun horretara arte proportzionalki murriztuko. |
| **Kenkaria desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik** | | • Pertsona desgaituen ondarea babesteari buruzko 41/2003 Legean araututako ondare babesturari egindako ekarpenek %30eko kenkaria dute. 3.000 eurokoa da urteko muga. |
| **Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik** | **Orokorra** | %20<br>Muga: 1.600,00 € |
| | **35 urtetik beherakoak (2)** | %25<br>Muga: 2.000,00 € |
| | **Familia ugaria (2)** | %25<br>Muga: 2.000,00 € |
| **Kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik** | **Kreditu fiskala** | 36.000 € zergadun bakoitzeko |
| | **Orokorra** | Inbertsioaren %18<br>Finantzazioaren %18 (interesak) |
| | **35 urtetik beherakoak (2)** | Inbertsioaren %23<br>Finantzazioaren %23 (interesak) |
| | **Familia ugariaren titularra (2)** | Inbertsioaren %23<br>Finantzazioaren %23 (interesak) |
| | **Etxebizitza kontua** | • Epea: 6 urte (2009, 2010 eta 2011n bukatzen direnek 2 urte gehiago izango dituzte, eta 2012an bukatzen direnek urtebete gehiago). |
| | | • Saldoa mugitzeko aukera dago, baina abenduaren 31 baino lehen berriro sartu behar da kontuan. |
| | | • Zergaduna hiltzen bada saldoa ohiko etxebizitzaren erosketan inbertitzeko epea amaitu aurretik, kenkaria ez da galtzen. |
| **Ohiko etxebizitzan inbertitzeak duen kenkariaren muga** | | • Urteko kenkaria 2.160,00 eurokoa da gehienez. Familia ugarien kasuan edo zergadunak 35 urtetik baino gutxiago dituenean, 2.760,00 eurokoa da muga. Batera aitortzen denean muga hori ez da bikoizten. |
| **Kenkaria dohaintzengatik eta lehentasunezko jarduerengatik** | | • Mezenasgoaren eta lehentasunezko jardueren aldeko dohaintzak: %30<br>• Zuzeneko zenbatespena erabiltzen duten zergadunek lehentasunezko jarduerei emandako kopuruak: %18 |
| **Dohaintzengatik eta lehentasunezko jarduerengatik aplikatzen den kenkariaren muga** | | • Dohaintzengatik aplikatzen den kenkariaren oinarriak ezin du gainditu zergaren oinarri likidagarriaren: %30 |
| **Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik** | | • Langileen sindikatuei ordaindutako kuotek %30eko kenkaria dute.<br>• %30eko kenkaria aplikatzen da alderdi politikoetako afiliazio kuotengatik eta haien aldeko ekarpenengatik. |

(1) Izatezko bikotea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratua.
(2) Zergadunaren adina edo familia ugariaren titulartasuna zehazteko, zergaren sortzapen egunean dagoen egoerari begiratuko zaio.

LANBIDEARTEKO GUTXIENEKO SOLDATA 2011n: 8.979,60 EURO

**Zergadunaren arreta zerbitzua**
*** Telefonoa (08:00etatik 15:00etara):** 902 100 040
*** Internet :** www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

## NORK AUKEZTU BEHAR DU AITORPENA?

1) Izaera orokorrez, Zergari atxikita dauden errentak (etekinak, errenta egotziak edo ondare irabazi eta galerak) lortu dituzten zergadunek aurkeztu behar dute aitorpena.

Hala ere, zergadunek ez dute aitorpena egin beharrik izango lortu dituzten errentak honako hauek bakarrik direnean:

a) 20.000,00 euro bitarteko lan etekin gordinak urtean, banakako tributazioan. Baterako tributazioan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzarentzat aplikatuko da.

b) Kapital higiezinaren eta higigarriaren etekinak, salbuetsitakoak barne, eta ondare irabazi eta galerak, beren urteko kopuru gordina 1.600,00 eurokoa baino handiagoa ez bada.

2) Aurreko apartatuko a) letran xedatutakoa xedatuta ere, zergadunek banaka jasotzen dituzten urteko lan etekinak 12.000,00 eta 20.000,00 euro bitartekoak badira, aitorpena aurkeztu beharko dute hurrengo egoera hauetako batean daudenean:

a) Zergaldiaren barruan ordaintzaile batengandik baino gehiagorengandik lan etekinak jaso dituztenean edo, ordaintzaile berarengandik jaso arren, honek atxikipena egiteko garaian etekinak metatu ez dituenean kontzeptu berdinen edo desberdinen ondorioz ordainduak izateagatik, eta, orobat, zergaldiaren barruan lan kontratu bat baino gehiago edo harreman laboral, administratibo edo antzeko bat baino gehiago izenpetu dutenean.

b) Kontratu edo lan harreman batean aurreikusitako epea behin amaiturik, enplegu emaile berberarentzat lanean jarraitu dutenean edo zergaldiaren barruan berriro lanean hasi direnean, eta halaber, beren lan kontratua edo harreman laboral, administratibo edo beste edozein motatakoa luzatu dutenean.

c) Epaileen erabakiz, ezkontidearengandik edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunarengandik pentsio konpentsagarriak jaso dituztenean edo gurasoenak ez diren urteko mantenurako ordainketak eskuratu dituztenean.

d) Lana dela-eta jasan diren atxikipenak edo konturako sarrerak foru erakundeek onartu ez duten araudi baten arabera kalkulatu direnean edo Euskal Herriko Foru Aldundiren bati ordaindu ez zaizkionean.

e) Ordainsariak peonadaka edo egunsarika jaso dituztenean.

f) Arrantzuntzietako langileen kasuan, jaso dituzten ordainsariak, osorik edo zati batean, lortutako arrantzaren balioaren partaidetza bat denean.

g) Emaitzen edo antzeko parametroen arabera ordainsari aldakorrak jaso dituztenean, betiere ordainsari horiek atxikipen portzentajea edo konturako sarrera kalkulatzeko kontuan hartu direnak baino handiagoak badira.

h) Salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenean, baldin eta horrek berekin badakar Zerga Administrazioari zirkunstantzia horren berri ematea edo erregularizazio edo diru-sarreraren bat egin behar izatea.

2. apartatu honetako a)tik g)ra arteko letretan azaldutako arrazoietako batengatik aitortzera behartuta dauden zergadunek aitorpen orokorra edo inprimaki honetako 13. orrian ageri den hautazko likidazioa aurkeztu ahal izango dute.

3) Zerga hau dela-eta atxiki edo kontura sartu diren zenbatekoak berreskuratu nahi dituzten zergadunek aitorpena aurkez dezakete, horretara beharturik egon gabe, itzulketa egitea bidezkoa denean.

## BANAKA EDO BATERA TRIBUTATZEA

Familia unitate bateko kide ez diren zergadunek banakako aitorpena egingo dute nahitaez.

Familia unitate batean dauden zergadunek banaka tributa dezakete nork bere aitorpena aurkeztuz. Dena den, batera tributatzea aukeratu dezakete familia unitateko kide guztien errentak metatuz.

BATERA TRIBUTATZEA AUKERATUZ GERO

Familia unitatearen barruan dauden pertsonek elkarrekin tributatzea aukeratzen badute, batera aurkeztu beharko dute aitorpena, familia unitatea osatzen duten kide guztien errentak metatuz.

Zergaldi baterako egiten den aukera aldatu daiteke gero, Zerga Administrazioak edozein jarduketa egiten duen arte.

AUKERA EGITEKO ERA

Batera tributatzea aukeratzeko, datu pertsonalen orrian "X" jarri behar da horretarako dagoen laukian.

Dena den, familia unitateko kide batek banaka aitortzen badu, familia unitateko gainerako kideek ere banaka egin beharko dute aitorpena.

## AITORPENA AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIAK

Aitorpena 2012ko apirilaren 17tik ekainaren 25era bitartean aurkeztu ahal izango da, toki hauetan:

POSITIBOAK:

- Banku, aurrezki kutxa eta kreditu kooperatibetan.
  Aitorpena aurkeztean, zergadunek konturako likidazio bat egin beharko dute eta ateratzen den zenbatekoa entitate horietan ordaindu. Ordainketa zatikatu nahi bada, zorraren %60 2012ko ekainaren 25a baino lehen ordainduko da, eta gainerako %40a azaroaren 10a baino lehen. Bigarren ordainketa, nahitaez helbideratu beharrekoa, azaroaren 10ean kargatuko da.

NEGATIBOAK ETA ITZULTZEKOAK:

- Banku, aurrezki kutxa eta kreditu kooperatibetan.
- Zerga bulegoetan.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Donostian kudeatzen duen bulegoan.

## AITORPENAREN EDUKIA

Aitorpena aurkezteko KARTAZALA erabili behar da, eta barruan honako hauek sartu:
1) AITORPENAREN 109 EREDUA, honela osatua:
- Aurkezpen orokorra egiten bada
  - Datu pertsonalen orria (1. orria).
  - Likidazio orriak (2., 3. eta 4. orriak).
  - Eranskinak, nahitaez bete behar dituztenentzat.
- Hautazko likidazioa egiten bada
  - Datu pertsonalen orria (1. orria).
  - Hautazko likidazio orria (13. orria).

2) Behar diren FROGAGIRIAK.
Kartazala itxi ondoren, zergadunaren NAren fotokopia eta ordainketaren Kontabilitate Agiria erantsiko zaizkio.

## FROGAGIRIAK

### Norberaren frogagiriak

- Zergadun bakoitzaren NAren fotokopia.
- Familia liburuko orri GUZTIEN fotokopia.
- Izatezko bikoteen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteen erregistroak emandako ziurtagiria, bikotea inskribatu edo, bere kasuan, desegin dela adierazteko.

Frogagiri horiek ez dira aurkeztu behar ondoko bi baldintza hauek betetzen badira:

1) Lehendik ere aurkeztuta egotea errenta aitorpenak Gipuzkoan egin direnean, eta
2) Horietan aldaketarik ez izatea.

### Errentak lortu direnean edo kenkarirako eskubidea dagoenean aurkeztu behar diren frogagiriak

- Atxikitzaileen ziurtagiria (10-T eredua), lan pertsonalaren etekinengatik izandako etekinak, gastuak, atxikitako zenbatekoak edo konturako sarrerak adieraziko dituena. Horren ezean, soldaten ordainagiriak edo aski diren bestelako frogagiriak aurkeztuko dira.
- Hauteskundeetan hautaturiko kargu politikoek nahiz izendapen librekoek euren erakunde politikoari nahitaez egindako ekarpenen ziurtagiria, erakundearen organo eskudunak luzatua.
- Langile aktibo desgaituen kasuan lan etekinen hobaria kontuan har dadin, minusbaliotasun maila eta, hala balitz, mugikortasun murriztua frogatzen dituen ziurtagiria aurkeztu behar da, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak, Autonomia Erkidegoko organo eskudunak edo Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak emana. Era berean, %65ekoa edo hortik gorako minusbaliotasun maila frogatu daiteke, ezintasuna aitortzen duen erabaki judiziala aurkeztuta.
- Ondasun higiezinak errentan emateagatik izandako etekinen eta gastu kengarrien frogagiriak eta, hala badagokio, haiei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren ziurtagiria (10-I eredua).
- Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako jarduera ekonomikoetan aritzen diren zergadunek izandako atxikipenen frogagiriak.
- Gardentasun fiskaleko sozietateek eta paradisu fiskaletan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeek egotzitako errenten frogagiriak.
- Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateek esleitutako errenten frogagiriak eta bazkide, oinordeko, komunero edo partaidearen zerga pertsonalean kendu beharreko konturako sarrerei dagozkienak.
- Ezkontideari edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunari pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenurako kopuruak ordaintzera behartzen duen erabaki judizialaren fotokopia, eta ordainketak benetan egin izanaren frogagiriak. Kanpoan geratzen dira zergadunaren seme-alaben alde finkatutako urteko kopuruak.
- Pentsio planen entitate kudeatzaileak, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak edo enpresen gizarte aurreikuspeneko planek luzaturiko ziurtagiria, partaide, bazkide edo mutualista bakoitzak egindako ekarpenak eta sustatzaileek edo bazkide babesleek egotzitakoak adieraziko dituena, eta orobat, aurreikuspen plan aseguratuen edo mendekotasun aseguru pribatuen entitate kudeatzaileak edo enpresen gizarte aurreikuspeneko planek emandako ziurtagiria, ordaindutako primak jasoko dituena. Ekarpenak pertsona minusbaliatuen alde egin badira, ahaidetasun harremana eta minusbaliotasun maila frogatu beharko dira.
- Ondare irabazi eta galeren frogagiriak, besteak beste, eskuratze eta eskualdatze balioak, eskuratze eta eskualdatze datak eta, hala bada, jasandako atxikipenak adieraziko dituztenak.
- Zergadunaren seme-alaben alde finkatutako urteko mantenua ordaintzera behartzen duen erabaki judizialaren kopia, eta ordainketak benetan egin izanaren frogagiriak.
- Zergadunaren tutoretzapean dauden pertsonak direnean, tutoretza eratu duen ebazpen judiziala aurkeztuko da, eta zergadunak etxean hartuta dauzkan adingabeak direnean, etxean hartu izanaren ziurtagiria aurkeztuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak emana.
- Kuotan kenkarirako eskubidea duten aurreko ahaideen erroldaketaren eta sarreren ziurtagiria. Pentsiorik jasotzen ez badute, pentsioduna ez dela frogatzen duen ziurtagiria, INSSak luzatua. Aurreko ahaidea egoitza batean bizi bada urte osoan, etengabe eta modu jarraituan, egoitzako egonaldiaren gastuei aurre egiteko zergadunak ordaindu dituen kopuruen frogagiria (faktura) aurkeztuko da.
- Desgaitasunaren eta mendekotasunaren kenkariak kontuan har daitezen, minusbaliotasun edo mendekotasun maila frogatu beharko da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak, Autonomia Erkidegoko organo eskudunak edo Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak luzatutako ziurtagiria aurkeztuz. Zergadunarekin 65 urteko edo hortik gorako pertsona desgaituak edo mendekoak bizi badira, bizikidetzako agiria eta sarreren frogagiria ere aurkeztuko dira. 65 urtetik gorako pertsona horiek pentsiorik jasotzen ez badute, pentsiodunak ez direla frogatu beharko da Gizarte Zerbitzuetako Institutu Nazionalak luzatutako ziurtagiria aurkeztuta. Minusbaliotasun maila %65ekoa edo handiagoa dela frogatzeko, baliaezintasunaren aitorpen judiziala ere aurkeztu ahal izango da.
- Pertsona desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenen frogagiriak.
- Etxebizitzaren errentamendu edo azpierrentamendu kontratuaren kopia, eta alokairu gisa egin diren ordainketen frogagiriak.
- Familia ugarien kasuan, familia ugaria izatearen frogagiria aurkeztuko da.
- Etxebizitzan inbertitzeagatik egin beharreko kenkariaren ziurtagiriak:
  - · Eraikitzen ari diren etxebizitzak: ordaindu diren zenbatekoen frogagiria.
  - · Eraikitako etxebizitzak: salerosketaren Eskritura Publikoaren fotokopia.
  - · Birgaiketa: birgainkuntza babestuei buruzko ebazpenaren kopia. Obra amaitu izanaren ziurtagiriaren kopia edo, ekitaldi bat baino gehiago irauten duten birgaikuntza obren kasuen, urteko ziurtagiriaren kopia.
  - · Etxebizitza-kontua: etxebizitza-kontuaren ziurtagiria. Honako hau adierazi behar du: entitatearen gakoa, kontu zenbakia (10digitu), irekiera data, eta irekiera datatik aurrera egindako mugimenduak.
  - · Mailegua eskatu bada, behar diren frogagiriak aurkeztuko dira.
  - · Familia ugarien kasuan, familia ugaria izatearen frogagiria aurkeztuko da.
- Jarduera ekonomikoak sustatzeko:
  - · Inbertsio edo gastuari dagozkion fakturak, eta Sozietateen gaineko Zergaren foru arauak eskatzen duen dokumentazioa.
  - · Langileek enpresan parte hartzeagatik egiten den kenkaria aplikatzeko ondo hau frogatu beharko da: langileak lan egiten duen entitatean edo sozietate taldeko beste edozeinetan duen partaidetza, eta lagileak entitate horretan edo sozietate taldeko beste edozeinetan akzioak edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko ordaindu dituen kopuruak.
  - · Enpresako Aurrezki-Kontua: egindako gordailuen ziurtagiria. Honako hau adierazi behar du: entitatearen gakoa, kontu zenbakia (10 digitu), irekiera data, eta irekiera datatik aurrera egindako mugimenduak.
- Erakunde sindikalari ordaindutako kuoten ziurtagiria, sindikatuko organo eskudunak luzatua.
- Alderdi politikoei ordaindutako kuoten eta egindako ekarpenen ziurtagiria, erakunde politikoaren organo eskudunak luzatua.
- Pertsona Fisikoen Errenta Zergaren Foru Arauak 93. artikuluan jasotako dohaintzengatik kenkaridunak diren ekarpenen frogagiriak.
- Enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei zergaldiaren barruan egindako ekarpenen frogagiria, kuota osoan kenkaria aplikatzeko, betiere abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, hamazazpigarren xedapen iragankorrean ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.
- Kenkaria aplikatu nahi bada bizitza edo elbarritasuneko aseguru kontratu indibidualei aplikagarri zaien konpentsazio fiskala dela eta, behar den frogagiria aurkeztu behar da.
- Bestelako frogagiriak.

OHARRA: frogatu behar diren gastu edota kenkariak ez dira behin-behineko likidazioan kontuan hartuko aitorpena egiteko unean dagozkien frogagiriak aurkezten ez badira.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA 2011

**109**

**1**

Código de Organismo / Organismo kodea: **75 03 6**

| Datu pertsonalak | | IFZ | Deiturak eta izena | Egoera zibila | Ezkontza erregimena | Jaioteguna | Heriotza eguna | Gakoa | Desg. % | Puntuak 3.en laguntzagatik | Mendekotasun Maila |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Familia unitateko kideak | Zergaduna | | | | | | | | | | |
| | Ezkontidea edo izatezko bikote laguna | | | Errentak | | | | | | | |
| | Adingabeko seme-alabak | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| Otros para deducción | Ondorengo ahaide adindunak, tutelatuak eta etxean hartuak | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | Aurreko ahaideak eta 4. mailarainoko beste senitarteko batzuk | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | 65 urtetik gorako desgaitua eta mendekoak | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

| Zerga helbidea | Zenbakia | Eskailera | Eskailera | Oina | Eskua |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |

| Udalerria | Gakoa | Posta kodea | Probintzia | Gakoa |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

| Telefono finkoa | Telefono mugikorra | Helbide elektronikoa |
|---|---|---|
| | | |

**Tributazio mota** *(jarri "X")*
- Familia unitatekoa ez den zergaduna ☐
- Familia unitatea: Banaka ☐ Batera ☐

**Zertarako erabili kuota osoaren %0,7** *(jarri "X")*
- Eliza katolikoari laguntzeko ☐
- Interes sozialeko beste xede batzuetarako ☐

Urte naturala baino laburragoa den zergaldia: Heriotza eguna | | | 11

Familia ugaria *(jarri "X")* ☐

| Sexua | Gizona | Emakumea |
|---|---|---|
| Aitortzaile | ☐ | ☐ |
| Ezkontidea | ☐ | ☐ |

| Ohiko etxebizitza errentan hartua | Errentatzailearen IFZ | Errentatzailearen deiturak eta izena / Sozietate izena | Errentaren zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |

**Ogasun eta Finantza Departamentuarekin harremanak izateko hobetsitako hizkuntza** *(jarri "X")*
- Euskara ☐
- Gaztelania ☐

Baimena ematen dut nire identitate eta harremanetarako datuak, orri honetan grisez nabarmenduta daudenak, bai eta haien eguneratzeak ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei lagatzeko ☐

Bertan behera uzten dut nire identitate eta harremanetarako datuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan lagatzeko emandako baimena. ☐

**Ordezkaria edo aurkezlea**

| IFZ | Deiturak eta izena / Sozietate izena |
|---|---|
| | |

| Helbidea | Zenbakia | Udalerria | Posta kodea | Probintzia |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

Lekua eta data ..............................................................

ZERGADUNAREN(EN) SINADURA(K)

ADMINISTRAZIOAREN ALEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA 2011

**109**

**1**

Código de Organismo / Organismo kodea: **75 03 6**

| Datu pertsonalak | | IFZ | Deiturak eta izena | Egoera zibila | Ezkontza erregimena | Jaioteguna | Heriotza eguna | Gakoa | Desg. % | Puntuak 3.en laguntzagatik | Mendekotasun Maila |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Familia unitateko kideak | Zergaduna | | | | | | | | | | |
| | Ezkontidea edo izatezko bikote laguna | | | Errentak | | | | | | | |
| | Adingabeko seme-alabak | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| Otros para deducción | Ondorengo ahaide adindunak, tutelatuak eta etxean hartuak | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | Aurreko ahaideak eta 4. mailarainoko beste senitarteko batzuk | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | 65 urtetik gorako desgaitua eta mendekoak | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

| Zerga helbidea | | | Zenbakia | Eskailera | Eskailera | Oina | Eskua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udalerria | Gakoa | Posta kodea | | Probintzia | | | Gakoa |
| Telefono finkoa | Telefono mugikorra | Helbide elektronikoa | | | | | |

| Tributazio mota *(jarri "X")* | |
|---|---|
| Familia unitatekoa ez den zergaduna | ☐ |
| Familia unitatea | Banaka ☐ Batera ☐ |

| Zertarako erabili kuota osoaren %0,7 *(jarri "X")* | |
|---|---|
| Eliza katolikoari laguntzeko | ☐ |
| Interes sozialeko beste xede batzuetarako | ☐ |

| Urte naturala baino laburragoa den zergaldia: Heriotza eguna | 11 | |
|---|---|---|
| Familia ugaria *(jarri "X")* ☐ | Sexua | Gizona / Emakumea |
| | Aitortzaile | ☐ / ☐ |
| | Ezkontidea | ☐ / ☐ |

| Ohiko etxebizitza errentan hartua | Errentatzailearen IFZ | Errentatzailearen deiturak eta izena / Sozietate izena | Errentaren zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |

| Ogasun eta Finantza Departamentuarekin Harremanak izateko hobetsitako hizkuntza *(jarri "X")* | |
|---|---|
| Euskera | ☐ |
| Gaztelania | ☐ |

| | |
|---|---|
| Baimena ematen dut nire identitate eta harremanetarako datuak, orri honetan grisez nabarmenduta daudenak, bai eta haien eguneratzeak ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei lagatzeko | ☐ |
| Bertan behera uzten dut nire identitate eta harremanetarako datuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan lagatzeko emandako baimena. | ☐ |

| Ordezkaria edo aurkezlea | IFZ | Deiturak eta izena / Sozietate izena | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Helbidea | Zenbakia | Udalerria | Posta kodea | Probintzia |

Lekua eta data ..............................................................................................

ZERGADUNAREN(EN) SINADURA(K)

AITORTZAILEAREN ALEA

*Inprimaki honetan idazten diren datuak Foru Ogasunaren fitxategi informatikoetan gordeko dira zerga helburuetarako, 15/1999 Lege Organikoak esandako eran. Errotaburu pasealekua 2, Donostia.



## INPRIMAKIAK NOLA BETE

Inprimakiak, ahal dela, idazmakinaz beteko dira. Eskuz betez gero, boligrafoa erabiliko da eta hizki larriz idatziko. Inprimakien paper kopiatzaileak gainazal gogor baten gainean jarriko dira idazten dena ale guztietan idatzirik ager dadin. Dagokien eremuetan, eta oso-osorik, identifikazio datuak, egoera pertsonal zein familiarrari dagozkionak nahiz aitortzaileak lortutako errentei buruzkoak jarriko dira. ZERGA HELBIDE OSOA ADIERAZIKO DA, POSTA KODEA BARNE, GEROKO JAKINARAZPENAK ERRAZTEKO.

## DATU PERTSONAL ETA FAMILIARRAK

__Familia unitateko kideak__: familia unitatea osatzen duten pertsonak adierazi behar dira, baita banaka tributatzen badute ere. Honako hauek osatzen dute familia unitatea:

1) Legez bananduta ez dauden ezkontideek, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteko kideek, baleude adingabeko seme-alabek, gurasoen baimenaz eurengandik aparte bizi direnean izan ezik, eta judizialki ezinduak diren seme-alaba adindunek, gurasoen aginte luzatu edo birgaitupean daudenean.

2) Senar-emazteak legez banandu direnean edo ezkontza-loturarik nahiz maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoterik ez dagoenean, bai eta horretarako epaileak emandako ebazpena dagoenean ere, familia unitatea gurasoetako batek eta aurreko apartatuan aipaturiko seme-alaba guztiek osatuko dute, norekin bizi diren alde batera utzita.

Familia unitatea osatzeko, seme-alaba guztiak gurasoetako bati bakarrik egotziko zaizkio, bien arteko akordioz.

Akordiorik ez badago, epailearen erabakiz seme-alaben ardura osoa bere gain duen gurasoak osatuko du familia unitatea seme-alaba guztiekin batera. Kasu horretan, bi familia unitate egon daitezke, eta horietako bakoitza gurasoak eta judizialki berari bakarrik egotzi zaizkion seme-alabek osatuko dute. Hori gertatzen denean, familia unitatea osatzeko, beharrezkoa izango da epaileen erabakiz izatea egotzia seme-alabaren baten ardura.

**I- Zergaduna**: IFZ, deiturak eta izena jarriko dira. Ondoren egoera zibila adieraziko da:

| | |
|---|---|
| EG | Ezkongabea |
| EK | Ezkondua |
| A | Alarguna |
| B | Epai bidez banandua |
| BL | Izatezko bikote-laguna, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratua. |

Senar-emazteen kasuan edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikotea osatu bada, adierazi zein den ezkontzako erregimen ekonomikoa edo izatezko bikotearen ondare erregimen ekonomikoa:

| | |
|---|---|
| I | Irabazpidezkoa |
| OB | Ondasun banaketa |
| B | Bestelakoak |

Jaioteguna eta, hala bada, heriotza-eguna honela beteko dira: urtea/hilabetea/eguna (lauki bakoitzean bi digitu jarriz).

Zergadunak pentsioak edo hartzeko pasiboak jasotzen baditu, "Gakoa" laukian "P" idatziko da.

Zergaduna pertsona desgaitua denean, “Desgaitasun %” laukian desgaitasun maila adieraziko da. Gainera, desgaitasun maila %75etik gorakoa bada, “Puntuak 3.en laguntzagatik” laukian hirugarrenengandik jaso beharreko laguntza zehazteko lortu den puntuazioa jarriko da.

Zergaduna mendeko pertsona denean, honako hau adieraziko da "Mendekotasun maila" laukian:

| | |
|---|---|
| T | Mendekotasun txikia |
| E | Mendekotasun ertaina |
| H | Mendekotasun handia |

**II- Ezkontidea edo 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna**: jarri ondoko datuak zergadunarentzat esandako eran: IFZ, deiturak eta izena, jaioteguna eta, hala bada, heriotza-eguna.

Ezkontideak edo bikote lagunak pentsioak edo hartzeko pasiboak jasotzen baditu edo desgaitua zein mendekoa bada, “Gakoa”, “Desgaitasun %”, “Puntuak 3.en laguntzagatik” eta "Mendekotasun maila" laukiak zergadunaren apartatuan esandako eran beteko dira.

**III- Adingabeko seme-alabak**: jarri ondoko datuak zergadunaren apartatuan esandako eran: IFZ, deiturak eta izena, ekitaldian lortutako errentak, jaioteguna eta, hala bada, heriotza-eguna.

Gako hauetako bat jarriko da, ondoko egoerak kontuak hartuz:

- C Gurasoetako batek (aitortzaileak) adingabeko seme-alabarekin batera aitortzen duenean eta seme-alaben kenkaria (2. likidazio orriko 66 laukia) gurasoen artean erdibana hainbanatzen denean, beti ere ezkontza baliogabetu bada, senar-emazteak dibortziatu edo banandu badira edota izatezko bikotea maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatu ez bada.
- H Adingabeko seme-alabak ezkontideetako bati bakarrik dagozkionean (aurreko harremanen ondorioz) eta seme-alaben kenkarirako eskubidea ematen dutenean (2. likidazio orriko 66 laukia).
- P Seme-alaba adindunen kasuan, gurasoen aginte luzatu eta birgaitupean daudenean.

Desgaituak edo mendekoak badira, “Desgaitasun %”, “Puntuak 3.en laguntzagatik” eta "Mendekotasun maila" laukiak zergadunaren apartatuan esandako eran beteko dira.

__Familia unitatekoak izan gabe kenkarirako eskubidea sortzen duten beste pertsona batzuk__:

**I- Ondorengo ahaide adindunak, tutelatuak eta etxean hartuak**: jarri ondoko datuak zergadunaren apartatuan esandako eran: IFZ, deiturak eta izena, ekitaldian lortutako errentak, jaioteguna eta, hala bada, heriotza-eguna.

Gako hauetako bat jarriko da ondoko egoerak kontuan hartuz:

- C Seme-alaben kenkaria (2. likidazio orriko 66 laukia) gurasoen artean erdibana hainbanatzen denean, beti ere ezkontza baliogabetu bada, senar-emazteak dibortziatu edo banandu badira, edota izatezko bikotea maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatu ez bada.
- H Seme-alabak ezkontideetako bati bakarrik dagozkionean (aurreko harremanen ondorioz) eta seme-alaben kenkarirako eskubidea ematen dutenean (2. likidazio orriko 66 laukia).
- T Pertsona tutelatua edo etxean hartua denean.

Desgaituak edo mendekoak badira, “Desgaitasun %”, “Puntuak 3.en laguntzagatik” eta "Mendekotasun maila" laukiak zergadunaren apartatuan esandako eran beteko dira.

**II- Aurreko ahaideak eta 4. mailara bitarteko beste senitarteko batzuk, horiek barne**: jarri ondoko datuak zergadunaren apartatuan esandako eran: IFZ, deiturak eta izena, ekitaldian lortutako errentak, jaioteguna eta, hala bada, heriotza-eguna.

"Gakoa" laukian hauxe jarriko da: zenbat pertsona (maila bereko ondorengo ahaide edo senideak) hartuko diren kontuan 2. likidazio orriko 68, 69 eta 70 laukietan ageri diren kenkariak hainbanatzeko.

Desgaituak edo mendekoak badira, “Desgaitasun %”, “Puntuak 3.en laguntzagatik” eta "Mendekotasun maila" laukiak zergadunaren apartatuan esandako eran beteko dira.

**III- 65 urtetik gorako desgaitu eta mendekoak**: apartatu hau beteko da aurreko apartatuan jasotakoen artean ez dauden 65 urteko edo hortik gorako pertsonak desgaituak edo mendekoak direnean eta zergadunarekin bizi direnean.

Jarri ondoko datuak zergadunaren apartatuan esandako eran: IFZ, deiturak eta izena, ekitaldian lortutako errentak, jaioteguna eta, hala bada, heriotza-eguna.

"Gakoa" laukian hauxe jarriko da: zenbat zergadunen artean hainbanatuko den 2. likidazio orriko 69 eta 70 laukietan desgaitasunagatik eta mendekotasunagatik jasotzen den kenkaria.

“Desgaitasun %” , “Puntuak 3.en laguntzagatik” eta “Mendekotasun maila” laukiak zergadunaren apartatuan esandako eran beteko dira.

## OHIKO ETXEBIZITZA

ZERGADUNAREN ZERGA HELBIDE OSOA ADIERAZI BEHAR DA, POSTA KODEA BARNE.

Zergadunaren ohiko etxebizitza ekitaldiaren barruan errentan hartu bada, errentatzailearen identifikazio datuak (IFZ eta deiturak eta izena edo sozietate izena) eta ordaindutako errenta adieraziko dira.

## TRIBUTAZIO MOTA ETA FAMILIA UGARIA

Familia unitate batean sartuta ez dauden zergadunek "X" jarri behar dute "Familia unitatekoa ez den zergaduna" laukian.

Familia unitate batean sartuta dauden pertsona fisikoek banaka tributatzen badute "X" ipiniko dute "banaka" laukian. Batera tributatzea aukeratuz gero, ordea, "batera" laukian jarriko dute "X" hori.

Familia ugaria izanez gero, dagokion laukian "X" jarriko da kategoriaren arabera.

## ZERGALDIA

Zergaldia urte naturala izaten da oro har.

Zergaldia urte naturala baino laburragoa izango da zerganduna abenduaren 31 ez den beste edozein egunetan hiltzen denean. Horrelakoetan, zergaduna zein egunetan hil den adierazi behar da aitorpenean.

## ZERGAREN ZATI BAT ERLIJIO XEDEETARAKO EDO BESTELAKO HELBURUETARAKO EMATEA

Kuota osoaren %0,7 Eliza Katolikoari laguntzeko edo interes sozialeko beste helburu batzuetarako erabili daiteke. Jarri "X" bat egiten duzun aukeran. Biak adierazten badituzu, kuota osoaren %0,7 Elizari Katolikoari laguntzeko erabiliko da, eta beste horrenbeste interes sozialeko beste helburu batzuetara bideratuko da.

## ORDEZKARIA/AURKEZLEA ETA ZERGADUNA

Zergaduna ordezkatzen duenaren edo aitorpena aurkezten duenaren datu hauek jarriko dira: IFZ, deiturak eta izena edo sozietate izena, eta helbidea. Aitortzaileak eta, batera tributatuz gero, familia unitateko gainerako kideek derrigorrez izenpetu behar dute aitorpena.

| | IFZ | 109 PFEZ | 1. likidazio orria |
|---|---|---|---|

2

**OINARRI EZARGARRI OROKORRA**

LANAREN ETEKINAK

| | | |
|---|---|---|
| Aurretiko etekina (1. eranskineko 18 laukia) | 01 | |
| Hobaria | 02 | |
| Lanaren etekin garbia ( 01 – 02 ) | 03 | |
| KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKIN GARBIA (2. eranskineko 24 laukia) | 04 | |
| KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKIN GARBIA (3. eranskineko 23 laukia) | 05 | |

JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK

| | | |
|---|---|---|
| Zenbatespen objektiboan (5. eranskineko 40 edo 44 laukien batura) | 06 | |
| Zuzeneko zenbatespenean (6. eranskineko 26 edo 30 laukien batura) | 07 | |

IETen eta EABen ERRENTA EGOZPENAK

| | IFZ | Jasotzailearen gakoa | Kenkariak | | Konturako ordainketak | | Oinarri ezargarria | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IETak | | | 08 | | 09 | | 10 | |
| EABak | | | 11 | | 12 | | 13 | |

NAZIOARTEKO GARDENTASUN FISKALA ETA PARADISU FISKALETAN ERATUTAKO INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEEN EGOZPENA

| Entitatea | Herrialdea | Jasotzailearen gakoa | Oinarri ezargarria | |
|---|---|---|---|---|
| | | | 14 | |

| | | |
|---|---|---|
| ETEKINAK ETA ERRENTEN EGOZPENAK ( 03 + 04 + 05 + 06 + 07 + 10 + 13 + 14 ) | 15 | |
| Konpentsazioa (gehienez ere 15 laukiko saldo positiboaren %25eko mugarekin) | 16 | |

ONDARE IRABAZI ETA GALERAK (ondare elementuen eskualdaketatik ez datozenak)

| | | |
|---|---|---|
| Irabaziak (4. eranskina) | 17 | |
| Galerak (4. eranskina) | 18 | |
| Aur. ekit.ko ondare galera orok.en saldo negatib.ren konpentsazioa | 19A | |

| | | |
|---|---|---|
| Ondare irabazi eta galeren saldo positiboa ( 17 – 18 – 19A ) | 20 | |
| OINARRI EZARGARRI OROKORRA ( 15 – 16 + 20 ) | 21 | |

Murrizpenak pentsio konpentsagarriengatik eta urteko mantenurako ordainketengatik

| Jasotzailearen IFZ | Jasotzailearen izen-abizenak | Murrizpena | |
|---|---|---|---|
| | | 22 | |

Murrizpenak mutualitateei, pentsio planei, BGAEei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruei ekarpenak egiteagatik

| Entitatea | Bazkidea | IFZ | Izena | Ekarpena | | Kontribuzioa | | Murrizpena | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 23 | | 24 | | 25 | |
| | | | | 26 | | 27 | | 28 | |
| | | | | 29 | | 30 | | 31 | |
| | | | | 32 | | 33 | | 34 | |

| | | |
|---|---|---|
| Murrizpena aurreko ekitaldietan egindako ekarpenengatik (7. eranskineko 19 edota 26 laukia) | 35 | |
| Murrizpena batera tributatzeagatik | 36 | |
| Aurreko ekitaldietako oinarri likidagarri orokor negatiboen konpentsazioa (8. eranskineko 05 laukia) | 37 | |
| ZERGAPETZEN DEN OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA ( 21 – 22 – 25 – 28 – 31 – 34 – 35 – 36 – 37 ) | 38 | |
| Errenta salbuetsiak, karga tasa zehazteko izan ezik | 39 | |
| KARGA ESKALA APLIKATZEKO OINARRIA ( 38 + 39 ) | 40 | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Kopuru honetaraino ..... | | ..................................... | | 41 | |
| 40ren gainerakoa ...... | | % | (e)an | 42 | |
| | | | ( 41 + 42 ) | 43 | |
| Batez besteko karga tasa orokorra ( 43 x 100/ 40 ) | | | | 44 | % |

| | | |
|---|---|---|
| **KUOTA OROKOR OSOA** ( 38 x 44 /100) | 45 | |

Jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazien doikuntza

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Irabazia .............................. | | x ( 44 – Sozietate zergaren tasa)/100 | 46 | |

**AURREZPENAREN OINARRI EZARGARRIA**

| | | |
|---|---|---|
| KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKIN GARBIA (2. eranskineko 38 laukia) | 47 | |
| Kapital higikorraren aurretiko etekin garbia (3. eranskineko 9 laukia) | 48 | |
| Salbuetsitako dibidendu eta mozkin-partaidetzak | 49 | |
| KAPITAL HIGIKORRAREN ETEKIN GARBIA ( 48 – 49 ) | 50 | |
| KAPITALAREN ETEKIN GARBIEN SALDO POSITIBOA ( 47 + 50 ) | 51 | |
| KAPITALAREN ETEKIN GARBIEN SALDO NEGATIBOA ( 47 + 50 ) | 52 | |
| Aurreko ekitaldietako kapitalaren etekinek emandako saldo negatiboen konpentsazioa (7. eranskineko 47 laukia) | 53 | |

ONDARE IRABAZI EDO GALERAK (ondare elementuen eskualdaketatik datozenak)

| | | |
|---|---|---|
| Irabaziak (4. eranskina) | 54 | |
| Galerak (4. eranskina) | 55 | |
| Ondare irabazi eta galeren saldo positiboa ( 54 - 55 ) | 56 | |
| Ondare irabazi eta galeren saldo negatiboa ( 54 - 55 ) | 57 | |
| Aur. ekit.ko aurrezp. ondare galera saldo negatib.ren konpentsazioa | 60 | |
| Pentsio konpentsagarriengatik eta mantenurako ordainketengatik murriztutakoaren gerakina | 61 | |

| | | |
|---|---|---|
| AURREZPENAREN OINARRI LIKIDAGARRIA ( 51 – 53 + 56 – 60 – 61 ) | 62 | |
| AURREZPENAREN KUOTA OSOA ( 62 laukiaren %20) | 63 | |
| KUOTA OSOA ( 45 – 46 + 63 ) | 64 | |

ADMINISTRAZIOAREN ALEA

## OINARRI EZARGARRI OROKORRA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| LANAREN ETEKINAK | | | | |
| Aurretiko etekina (1. eranskineko 18 laukia) | 01 | | | |
| Hobaria | 02 | | | |
| Lanaren etekin garbia ( 01 – 02 ) | | | 03 | |
| KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKIN GARBIA (2. eranskineko **24** laukia) | | | 04 | |
| KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKIN GARBIA (3. eranskineko **23** laukia) | | | 05 | |
| JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK | | | | |
| Zenbatespen objektiboan (5. eranskineko **40** edo **44** laukien batura) | | | 06 | |
| Zuzeneko zenbatespenean (6. eranskineko **26** edo **30** laukien batura) | | | 07 | |

IETen eta EABen ERRENTA EGOZPENAK

| | IFZ | Jasotzailearen gakoa | Kenkariak | | Konturako ordainketak | | Oinarri ezargarria | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IETak | | | 08 | | 09 | | 10 | |
| EABak | | | 11 | | 12 | | 13 | |

NAZIOARTEKO GARDENTASUN FISKALA ETA PARADISU FISKALETAN ERATUTAKO INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEEN EGOZPENA

| Entitatea | Herrialdea | Jasotzailearen gakoa | Oinarri ezargarria | |
|---|---|---|---|---|
| | | | 14 | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ETEKINAK ETA ERRENTEN EGOZPENAK ( **03** + **04** + **05** + **06** + **07** + **10** + **13** + **14** ) | | | 15 | |
| Konpentsazioa (gehienez ere 15 laukiko saldo positiboaren %25eko mugarekin) | | | 16 | |
| ONDARE IRABAZI ETA GALERAK (ondare elementuen eskualdaketatik ez datozenak) | | | | |
| Irabaziak (4. eranskina) | 17 | | | |
| Galerak (4. eranskina) | 18 | | | |
| Aur. ekit.ko ondare galera orok.en saldo negatib.ren konpentsazioa | 19A | | | |
| Ondare irabazi eta galeren saldo positiboa ( **17** – **18** – **19A** ) | | | 20 | |
| OINARRI EZARGARRI OROKORRA ( **15** – **16** + **20** ) | | | 21 | |

Murrizpenak pentsio konpentsagarriengatik eta urteko mantenurako ordainketengatik

| Jasotzailearen IFZ | Jasotzailearen izen-abizenak | Murrizpena | |
|---|---|---|---|
| | | 22 | |

Murrizpenak mutualitateei, pentsio planei, BGAEei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruei ekarpenak egiteagatik

| Entitatea | Bazkidea | IFZ | Izena | Ekarpena | | Kontribuzioa | | Murrizpena | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 23 | | 24 | | 25 | |
| | | | | 26 | | 27 | | 28 | |
| | | | | 29 | | 30 | | 31 | |
| | | | | 32 | | 33 | | 34 | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Murrizpena aurreko ekitaldietan egindako ekarpenengatik (7. eranskineko **19** edota **26** laukia) | | | | | 35 | |
| Murrizpena batera tributatzeagatik | | | | | 36 | |
| Aurreko ekitaldietako oinarri likidagarri orokor negatiboen konpentsazioa (8. eranskineko **05** laukia) | | | | | 37 | |
| ZERGAPETZEN DEN OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA ( **21** – **22** – **25** – **28** – **31** – **34** – **35** – **36** – **37** ) | | | | | 38 | |
| Errenta salbuetsiak, karga tasa zehazteko izan ezik | | | | | 39 | |
| KARGA ESKALA APLIKATZEKO OINARRIA ( **38** + **39** ) | | | | | 40 | |
| Kopuru honetaraino ..... | | ........................ | 41 | | | |
| 40ren gainerakoa ...... | | % (e)an | 42 | | | |
| ( **41** + **42** ) | | | 43 | | | |
| Batez besteko karga tasa orokorra ( **43** x 100/ **40** ) | | | 44 | % | | |
| **KUOTA OROKOR OSOA** ( **38** x **44** /100) | | | | | 45 | |
| Jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazien doikuntza | | | | | | |
| Irabazia ................................ | | x ( **44** – Sozietate zergaren tasa)/100 | | | 46 | |

## AURREZPENAREN OINARRI EZARGARRIA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKIN GARBIA (2. eranskineko 38 laukia) | | | 47 | |
| Kapital higikorraren aurretiko etekin garbia (3. eranskineko 9 laukia) | | | 48 | |
| Salbuetsitako dibidendu eta mozkin-partaidetzak | | | 49 | |
| KAPITAL HIGIKORRAREN ETEKIN GARBIA ( 48 – 49 ) | | | 50 | |
| KAPITALAREN ETEKIN GARBIEN SALDO POSITIBOA ( 47 + 50 ) | | | 51 | |
| KAPITALAREN ETEKIN GARBIEN SALDO NEGATIBOA ( 47 + 50 ) | | | 52 | |
| Aurreko ekitaldietako kapitalaren etekinek emandako saldo negatiboen konpentsazioa (7. eranskineko 47 laukia) | | | 53 | |
| ONDARE IRABAZI EDO GALERAK (ondare elementuen eskualdaketatik datozenak) | | | | |
| Irabaziak (4. eranskina) | 54 | | | |
| Galerak (4. eranskina) | 55 | | | |
| Ondare irabazi eta galeren saldo positiboa ( 54 - 55 ) | 56 | | | |
| Ondare irabazi eta galeren saldo negatiboa ( 54 - 55 ) | 57 | | | |
| Aur. ekit.ko aurrezp. ondare galera saldo negatib.ren konpentsazioa | 60 | | | |
| Pentsio konpentsagarriengatik eta mantenurako ordainketengatik murriztutakoaren gerakina | 61 | | | |
| AURREZPENAREN OINARRI LIKIDAGARRIA ( 51 – 53 + 56 – 60 – 61 ) | | | 62 | |
| AURREZPENAREN KUOTA OSOA ( **62** laukiaren %20) | | | 63 | |
| KUOTA OSOA ( **45** – **46** + **63** ) | | | 64 | |

AITORTZAILEAREN ALEA

**Zergadunaren arreta zerbitzua**
*** Telefonoa (08:00etatik 15:00etara):** 902 100 040
*** Internet :** www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

*Inprimaki honetan idazten diren datuak Foru Ogasunaren fitxategi informatikoetan gordeko dira zerga helburuetarako, 15/1999 Lege Organikoak esandako eran. Errotaburu pasealekua 2, Donostia.



**02 - Hobaria**: aurretiko etekinak, 01 laukian adieraziak, honako hobariak izango ditu (emaitza ezin da inoiz negatiboa izan):

a) 7.500,00 eurokoa edo txikiagoa bada: 4.650,00 euro.

b) 7.500,01 eta 15.000,00 euro bitartekoa bada: 4.650,00 euro ken eragiketa honen emaitza: aurretiko etekinari 7.500,00 euro kendu ondoren ateratzen dena bider 0,22. Hau da:

4.650,00 € – 0,22 x ( 01 - 7.500,00 €).

c) 15.000,00 eurotik gorakoa bada:3.000,00 euro.

Oinarri ezargarrian lanetik ez datozen errentak konputatzen direnean, eta horiek 7.500,00 eurotik gorakoak direnean, hobaria 3.000,00 eurokoa izango da.

Aurreko hobariak honela gehituko dira:

a) %100, langile aktibo desgaituentzat (ez pentsiodunak), beren minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean.

b) %250, langile aktibo desgaituentzat (ez pentsiodunak), beren minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean eta mugikortasuna murriztuta dutenean. Baita %65eko minusbaliotasuna edo handiagoa duten langile aktibo desgaituentzat ere.

**08 tik 13 ra** - Identifikatu EABa, IETa eta bazkidea.

08 eta 11 laukietan eta 09 eta 12 laukietan adierazitako zenbatekoak 3. likidazio orriko 105 eta 116 laukietara eramango dira hurrenez hurren.

**14 - Nazioarteko gardentasun fiskala eta paradisu fiskaletan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeen egozpena**: jarri entitatearen izena eta herrialdea, bazkide edo partaidea, eta egotzi den oinarri ezargarria.

**16 - Konpentsazioa**: posible da ondare irabazi eta galerak, ondare elementuen eskualdaketatik ez datozenak, beraien artean bakarrik integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo negatiboa konpentsatzea, muga bat jarrita: 15 laukian adierazitako etekinen eta errenta egozpenen saldo positiboaren %25.

## ONDARE ELEMENTUEN ESKUALDAKETATIK EZ DATOZEN ONDARE IRABAZI ETA GALERAK

**17 eta 18 - Irabaziak/galerak**: ondare elementuen eskualdaketatik eratorriak ez direnak jarriko dira hemen, hau da, ondare irabazi eta galerei buruzko 4. eranskineko 28 laukian "G" izaerarekin adieraziak.

Irabazien eta galeren arteko aldeak saldo positiboa ematen badu, oinarri ezargarri orokorraren parte izango da. Aldiz, bi horien arteko aldeak saldo negatiboa ematen badu, 15 laukian adierazitako etekinen eta errenta egozpenen saldo positiboaren %25ekin konpentsatuko da. Konpentsazioa egin ondoren saldo negatiboa gelditzen bada, 7. eranskinean idatziko da, 2011. urteari dagokion zutabeko 06 edota 07 laukian. Saldo hori hurrengo 4 urteetan konpentsatuko da, lehendabizi ondare elementuen eskualdaketatik etorri gabeko irabazi eta galerekin, eta horrek saldo negatiboa emanez gero, 15 laukian adierazitako etekinen eta errenta egozpenen saldo positiboaren %25eko mugarekin.

## OINARRI EZARGARRI OROKORRAREN MURRIZPENAK

Murrizpen hauen aplikazioak ezin du berekin ekarri oinarri likidagarri orokorra negatiboa izatea edo hura handitzea.

**22 - Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunaren alde emandako pentsio konpentsagarriak, eta urteko mantenurako ordainketak**, zergadunaren seme-alaben alde finkatutakoak izan ezik, biak ere erabaki judizialen ondorioz ordainduak. Lehenik, jasotzailearen IFZ eta izen-abizenak idatziko dira, eta 22 laukian pentsioaren edo urteko ordainketaren zenbatekoa jarriko da.

**23 tik 34 ra - Mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/EB Zuzentarauan arautatako pentsio planei, BGAEei, enpresarien gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruei egindako ekarpenak**: lehendabizi entitatea identifikatu behar da (BGAE bat bada, "1" idatziko da, eta mutualitatea, aurreikuspen plan aseguratua, pentsio plana, enpresarien gizarte aurreikuspeneko plana edo mendekotasun asegurua bada "2", IFZ eta izena). Gero, mutualista, aseguratua, partaidea edo bazkidea identifikatuko da (aitortzailea bada "A" jarriko da, ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna bada "E" , eta adingabeko seme-alaba bakoitzagatik "S1", "S2"....). Azkenik, zergadunaren ekarpenak jarriko dira, bai eta bazkide babesleak edo sustatzaileak haren alde egindako kontribuzio enpresarialak ere, zergadunari lan etekin gisa egotzi zaizkionean.

Murriztu beharreko zenbatekoak , 25, 28, 31 eta 34 laukietara eramango dira, jarraian azaltzen diren mugak errespetatuz.

Murrizpen horien mugak ondoko hauek dira:

- 8.000,00 euro, zergadunak urtean egindako ekarpen guztietarako, bazkide babesleek edo sustatzaileek egozten dizkioten kontribuzio enpresarialak kanpoan utzita.
- 8.000,00 euro, bazkide babesleek edo sustatzaileek zergadunaren alde egin dituzten eta lan etekin gisa egotzi dizkioten urteko kontribuzio enpresarial guztietarako. Banakako enpresariak gizarte aurreikuspeneko entitate edo mutualitateei, pentsio planei eta enpleguko pentsio planei egindako ekarpen propioak muga horren barruan sartzen dira, baldin eta enpresaria aldi berean sustatzailea eta partaide edo mutualista bada edo bazkide babesle eta onuradun gisa ageri bada. Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da 137/2007 Foru Dekretuak 64. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzea.

**Zergadunak 52 urte baino gehiago dituenean**, aurreko mugak 1.250,00 euro gehituko dira 52 urteko adina gainditzen den urte bakoitzeko. 65 urte edo gehiago dutenentzat, 24.250,00 eurokoa da muga.

**Mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei , BGAEei, enpresarien gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruei egindako ekarpenak, onuraduna ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna denean**: zergadunaren ezkontideak edo bikote-lagunak oinarri ezargarriaren zati orokorrean sartu beharreko errentarik lortzen ez duenean edo, lortuta ere, horien urteko kopurua 8.000,00 eurotik beherakoa denean, zergadunak aurreko mugen arabera egindako murrizpenez gain, mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, BGAEei, enpresarien gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruei egindako ekarpenak ere murriztu ahal izango ditu baldin eta ezkontidea edo bikote-laguna haien mutualista, aseguratu, partaide edo bazkide bada. Urteko muga 2.400,00 eurokoa izango da. Ezkontide edo bikote-lagun onuraduna adieraziko da "Bazkidea" laukian "A" jarriz. Entitatea eta egindako ekarpenak ere adieraziko dira.

**Aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, BGAEei , enpresarien gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruei egindako ekarpenak, haien onuradunak %65eko edo hortik gorako minusbaliotasun fisiko edo zentzumenezkoa duenean, %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun psikikoa duenean, edo baliaezintasuna judizialki aitortu zaionean maila horretara iritsi ez arren**. Bi kasu daude:

a) Zergadunak pertsona minusbaliatuaren alde egitea ekarpenak. Horrelakoetan, "Bazkidea" laukian "F" jarri behar da, familiar minusbaliatua zein den adierazi (IFZ eta izen-abizenak), eta egindako ekarpenak idatzi. Murrizpena 8.000,00 eurokoa izango da gehienez, beti ere aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 3002/41/EB Zuzentarauan arautuko pentsio planei, BGAEei, enpresarien gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruei bere kabuz egindako beste ekarpenak eragotzi gabe.

b Ekarpenak minusbaliatuak berak egitea. Horrelakoetan, "Bazkidea" laukian "M" jarri behar da, entitatea identifikatu eta egindako ekarpenak adierazi. Murrizpena ezin da 24.250,00 eurotik gorakoa izan.

Minusbaliatuak berak egindako ekarpenak eta beste pertsona batzuek haren alde egindakoak aldi berean ageri direnean, lehenik eta behin minusbaliatuak berak egindakoak murriztuko dira. Bakar-bakarrik 24.250,00 euroko mugara iristen ez badira murriztu ahal izango dira bere oinarri ezargarrian beste pertsona batzuek haren alde egindakoak. Minusbaliatu beraren alde ekarpenak egin dituzten pertsona guztiek aplikatutako murrizpenek ezin dute inoiz 24.250 euroko kopurua gainditu.

**Kirolari profesional eta goi mailakoek egindako ekarpenak**: "Bazkidea" laukian "P" idatziko da. Kirolari profesionalen mutualitateei zuzenean edo zeharka egindako ekarpenen gehienezko murrizpena kopuru hauetatik txikiena izango da:

- 24.250,00 euro.
- Lan etekinak (sarrerak ken gastuak) eta jarduera ekonomikoen etekinak batuta ateratzen den emaitza.

Gehienezko muga horiek familia unitateko zergadun bakoitzari aplikatuko zaizkio, zergadun bakoitzak oinarri ezargarrian duen proportzioa kontuan hartuz.

**36 - Baterako tributazioa**: batera tributatzea aukeratzen bada, honako murrizpenak egingo dira:

- 4.033,00 euro urtean, izaera orokorrez.

- 3.503,00 euro, familia unitateen kasuan, ezkontza loturarik ez dagoenean edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoterik ez denean.

**37** - 2010, 2009, 2008 eta 2007ko ekitaldietan izandako oinarri likidagarri orokor negatiboak konpentsatzeko adieraziko dira.

## 38 tik 40 era - OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA 21 - 22 - 25 - 28 - 31 - 34 - 35 - 36 - 37

Negatiboa bada, hurrengo 4 urteetan konpentsatuko da oinarri likidagarri orokor positiboekin. Positiboa izanez gero, berriz, zergapetu egingo da.

Karga tasa zehazteko kontuan hartu behar diren errenta salbuetsiak 39 laukian adieraziko dira.

## 40 etik 45 era - KUOTA OROKOR OSOA

| Oinarri likidagarria | Kuota osoa | Oinarri likidagarriaren gainerakoa | Tasa |
|---|---|---|---|
| 0,00 | 0,00 | 14.860,00 | 23,00 |
| 14.860,00 | 3.417,80 | 14.860,00 | 28,00 |
| 29.720,00 | 7.578,80 | 14.860,00 | 35,00 |
| 44.580,00 | 12.779,60 | 19.100,00 | 40,00 |
| 63.680,00 | 20.419,60 | Hortik aurrera | 45,00 |

**46** - Ondare irabazi eta galerak lortu badira jarduera ekonomikoari atxikitako ondare elementuak eskualdatu direlako, eta horien saldo garbia positiboa bada, **kuota orokor osoan doiketa bat** egingo da. Horretarako beharrezkoa izango da:

1) Batez besteko karga tasa orokorra ( 44 laukia) Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra baino handiagoa izatea.

2) Jardueraren etekin garbia positiboa izatea.

Doiketa ( 46 laukia) honela egingo da: jardueraren etekin garbian sartzen den irabazia batez besteko tasa orokorraren ( 44 laukia) eta Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorraren arteko diferentziarekin biderkatuz eta horren emaitza kuota osotik murriztuz. Kuota osoa, beraz, 45 eta 63 laukietako zenbatekoak batuz eta 46 laukiko zenbatekoa kenduz lortuko da.

## KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKIN GARBIA

**50** - Kapital higigarriaren aurretiko etekinari salbuetsitako dibidendu eta mozkin-partaidetzak kendu ondoren ateratzen den zenbatekoa jarriko da lauki honetan. Urteko salbuespena gehienez 1.500,00 eurokoa da aitorpeneko.

**53** - Aurrezpenaren oinarri ezargarrian sartzen diren kapitalaren etekinak elkarren artean konpentsatzetik ateratzen den saldo negatiboa 7. eranskinean jarri behar da, 2011. urteari dagokion zutabeko 48 edota 49 laukietan.

## ONDARE ELEMENTUEN ESKUALDAKETATIK ERATORRITAKO ONDARE IRABAZI ETA GALERAK

**54 eta 55 Irabaziak eta galerak**: ondare elementuen eskualdaketatik eratorritakoak jarriko dira hemen, hau da, ondare irabazi eta galerei buruzko 4. eranskineko 28 laukian "A" izaerarekin adieraziak. Bien arteko aldeak hau ematen badu:

- **Saldo negatiboa**, hurrengo 4 urteetan konpentsatuko da talde bereko irabazi eta galerekin. Konpentsatu beharreko saldo negatiboa 7. eranskinean idatzi behar da, 2011. urteari dagokion zutabeko 13 edota 14 laukietan.
- **Saldo positiboa**, aurrezpenaren oinarri ezargarrira joango da.

**57** - Aurrezpenaren ondare irabaziak eta galerak elkarren artean konpentsatzetik ateratzen den saldo negatiboa 7. eranskineko 13 edo 14 laukietan jarri behar da.

| KENKARIAK | | |
|---|---|---|
| KENKARI OROKORRA | 65 | |
| JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO KENKARIA | 65A | |
| PENTSIODUNEN ETA LANGABETUEN KENKARI KONPENTSAZIOA | 65B | |
| KENKARI FAMILIAR ETA PERTSONALAK | | |
| **Ondorengo ahaideengatik** | 66 | |
| **Urteko mantenua ordaintzeagatik** — Seme-alaba kopurua — Urteko Ordainketa — X 0,15 | 67 | |
| **Aurreko ahaideengatik** | 68 | |
| **Desgaitasunagatik** | 69 | |
| **Mendetasunagatik** | 70 | |
| **65 urtetik gorako adinagatik** | 71 | |
| KENKARIA DESGAITUAREN ONDARE BABESTUARI EKARPENAK EGITEAGATIK | | |
| Desgaituaren ondare bebestuari egindako ekarpenak — %30 | 72 | |

OHIKO ETXEBIZITZAREN KENKARIAK

**Ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik**

| Errentatzailearen IFZ | Errentatzailearen izen-abizenak / Sozietate izena | Alokairua | % | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | % | 73 | |
| | | | % | 74 | |

**Ohiko etxebizitza erosteagatik**

| Titularitate portzentajea | % | Erosketa | Birgaiketa |
|---|---|---|---|
| Kalea, zenbakia eta oina | | | |
| Udalerria | | | |
| Noiz erosia/birgaitua | | | |
| Erosketa/birgaiketaren balioa | | | |
| Berrinbertsioarekin finantzatua | | | |
| Etxebizitza kontuarekin finantzatua | | | |
| Maileguekin finantzatua | | | |
| Baliabide propioekin finantzatua | | | |
| Aurreko etxebizitzetan erabilitako kreditu fiskala | | | |
| Oraingo etxebizitzarako dagoen kreditu fiskala | | | |

| | | 1. mailegua: erosk. | 2. mailegua: erosk. | 1. mailegua: birgaik. | 2. mailegua: birgaik. |
|---|---|---|---|---|---|
| Maileguak | Mailegu emailea | | | | |
| | Mailegua eman den eguna | | | | |
| | Hasierako zenbatekoa | | | | |
| | Portzentaje kengarria (A) | % | % | % | % |
| | Titularitate portzentajea (T) | % | % | % | % |
| | Ekitaldiko interesak (B) | | | | |
| | Ekitaldiko amortizazioa (C) | | | | |
| | Int. kengarriak ( D )=(A)x(B)x(T) | | | | |
| | Amort. kengarria ( E )=(A)x(C)x(T) | | | | |
| Konturako ordainketak ( F ) | | | | | |

| | Kenkariaren oinarria | | Kenkariaren portzentajea | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Erosketaren kenkaria | D , E eta F ren batura | x | % | 75 | |

**Etxebizitza kontuan inbertitzeagatik**

| Titularra | Entitatea | Kontu zenbakia (10 digitu) | Noiz irekia | Ekitaldiko inbertsioa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | X 0,18 | 76 | |
| | | | | Erabilitako kreditu fiskala | | | |

ZERGAPETZE BIKOITZAREN KENKARIAK

**Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik**

| | | |
|---|---|---|
| PFEZren antzeko zerga batengatik atzerrian ordaindutako zenbatekoa | A | |
| Atzerrian lortutako errenta — x % (batez besteko tasa) | B | |
| A eta B ren arteko txikiena | 78 | |

| KENKARIA LANGILEEN SINDIKATUEI ETA ALDERDI POLITIKOEI ORDAINDUTAKO KUOTENGATIK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Langileen sindikatuei ordaindutako kuoten kenkaria | | %30 | 79 | |
| Alderdi politikoen aldeko kuoten eta ekarpenen kenkaria | | %30 | 80 | |
| KENKARIA ENPRESEN GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMEEI EGINDAKO EKARPENENGATIK | | | | |
| Enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen kenkaria | | %50 | 81 | |

ADMINISTRAZIOAREN ALEA

| IFZ | 109 PFEZ | 2. likidazio orria |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| **KENKARIAK** | | |
| KENKARI OROKORRA | 65 | |
| JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO KENKARIA | 65A | |
| PENTSIODUNEN ETA LANGABETUEN KENKARI KONPENTSAZIOA | 65B | |
| KENKARI FAMILIAR ETA PERTSONALAK | | |
| **Ondorengo ahaideengatik** | 66 | |
| **Urteko mantenua ordaintzeagatik** — Seme-alaba kopurua — Urteko Ordainketa — X 0,15 | 67 | |
| **Aurreko ahaideengatik** | 68 | |
| **Desgaitasunagatik** | 69 | |
| **Mendetasunagatik** | 70 | |
| **65 urtetik gorako adinagatik** | 71 | |
| KENKARIA DESGAITUAREN ONDARE BABESTUARI EKARPENAK EGITEAGATIK | | |
| Desgaituaren ondare bebestuari egindako ekarpenak — %30 | 72 | |
| OHIKO ETXEBIZITZAREN KENKARIAK | | |
| **Ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik** | | |

| Errentatzailearen IFZ | Errentatzailearen izen-abizenak / Sozietate izena | Alokairua | % | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | % | 73 | |
| | | | % | 74 | |

**Ohiko etxebizitza erosteagatik**

| Titularitate portzentajea | % | Erosketa | Birgaiketa |
|---|---|---|---|
| Kalea, zenbakia eta oina | | | |
| Udalerria | | | |
| Noiz erosia/birgaitua | | | |
| Erosketa/birgaiketaren balioa | | | |
| Berrinbertsioarekin finantzatua | | | |
| Etxebizitza kontuarekin finantzatua | | | |
| Maileguekin finantzatua | | | |
| Baliabide propioekin finantzatua | | | |
| Aurreko etxebizitzetan erabilitako kreditu fiskala | | | |
| Oraingo etxebizitzarako dagoen kreditu fiskala | | | |

| Maileguak | 1. mailegua: erosk. | 2. mailegua: erosk. | 1. mailegua: birgaik. | 2. mailegua: birgaik. |
|---|---|---|---|---|
| Mailegu emailea | | | | |
| Mailegua eman den eguna | | | | |
| Hasierako zenbatekoa | | | | |
| Portzentaje kengarria (A) | % | % | % | % |
| Titularitate portzentajea (T) | % | % | % | % |
| Ekitaldiko interesak (B) | | | | |
| Ekitaldiko amortizazioa (C) | | | | |
| Int. kengarriak ( D )=(A)x(B)x(T) | | | | |
| Amort. kengarria ( E )=(A)x(C)x(T) | | | | |
| Konturako ordainketak ( F ) | | | | |

| | Kenkariaren oinarria | | Kenkariaren portzentajea | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Erosketaren kenkaria | D , E eta F ren batura | x | % | 75 | |

**Etxebizitza kontuan inbertitzeagatik**

| Titularra | Entitatea | Kontu zenbakia (10 digitu) | Noiz irekia | Ekitaldiko inbertsioa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | X 0,18 | 76 | |
| | | | Erabilitako kreditu fiskala | | | | |

| | | |
|---|---|---|
| ZERGAPETZE BIKOITZAREN KENKARIAK | | |
| **Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik** | | |
| PFEZren antzeko zerga batengatik atzerrian ordaindutako zenbatekoa | A | |
| Atzerrian lortutako errenta — x — % (batez besteko tasa) | B | |
| A eta B ren arteko txikiena | 78 | |
| KENKARIA LANGILEEN SINDIKATUEI ETA ALDERDI POLITIKOEI ORDAINDUTAKO KUOTENGATIK | | |
| Langileen sindikatuei ordaindutako kuoten kenkaria — %30 | 79 | |
| Alderdi politikoen aldeko kuoten eta ekarpenen kenkaria — %30 | 80 | |
| KENKARIA ENPRESEN GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMEEI EGINDAKO EKARPENENGATIK | | |
| Enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen kenkaria — %50 | 81 | |

AITORTZAILEAREN ALEA

## KENKARI OROKORRA

65 - Zergadunek 1.327,00 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean. Kenkari hori aitorpen bakoitzeko egingo da.

## JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO KENKARIA

65A - Zergadunek 400,00 euroko kenkaria izango dute urtean, baldin eta beren oinarri ezargarria (21 eta 62 laukien batura) 15.000 eurokoa edo txikiagoa bada, aitorpen bakoitzeko. Batura hori 15.000.01 eta 19.999,99 euro bitartean badago, 400 euroko kopuruari oinarri ezargarriaren eta 15.000 euroren arteko diferentziaren 0,08 kenduko zaio, aitorpen bakoitzeko.

## LANGABETUEN ETA PENTSIODUNEN KONPENTSAZIO KENKARIA

65B- Zergadunek kontzeptu horiengatik jasotako %1eko kenkaria izango dute, baldin eta beraien Oinarri Ezargarria (21 eta 62 laukien batura) 20.000 eurotakoa edo gutxiagokoa bada. Autolikidazio bakoitzeko praktikatuko da kenkari hau.

## KENKARI FAMILIAR ETA PERTSONALAK

Kenkari hauek aplikatzeko kontuan hartuko diren zirkunstantzia pertsonal eta familiarrak abenduaren 31koak izango dira. Kenkariak konputatzeko garaian, kalkulua ez da inoiz ere izango kenkariak aplikatzeko exijitutako zirkunstantziak gertatu diren urte naturaleko egun kopuruaren araberakoa.

Kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsona hil denean, kenkari hauek aplikatzeko kontuan hartuko diren zirkunstantzia pertsonal eta familiarrak pertsona horren heriotza egunean dagoen egoera aintzat hartuz zehaztuko dira. Kenkarien zenbatekoa ezingo da data horretara arte proportzionalki murriztu.

66 - **Zergadunarekin bizi diren ondorengo ahaideengatik**: zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzagatik edo diru trukerik gabe etxean hartua nahiz tutoretzapean hari lotuta dagoen pertsona bakoitzagatik honako kenkariak egingo dira:

- 558,00 euro, lehenengoagatik.
- 691,00 euro, bigarrenagatik.
- 1.168,00 euro, hirugarrenagatik.
- 1.380,00 euro, laugarrenagatik.
- 1.804,00 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik.

Ondorengo ahaideak 6 urte baino gutxiago baditu, zenbateko horiek 319,00 euro gehituko dira urtean.

Kenkari hau ez da egingo ondorengo ahaideak:

- 30 urte baino gehiago dituenean, desgaitasunaren kenkarirako eskubidea sortzen duenean izan ezik.
- Zergaldian lortu dituen urteko errentak, salbuetsiak sartu gabe, 8.979,60 eurokoak baino handiagoak direnean edo, bestela, beste familia unitate batekoa izanik, bertako kideetako edozeinek dagokion zergaldian lortutako urteko errentak, salbuetsiak sartu gabe, 8.979,60 eurotik gorakoak direnean.
- Delako zergaldiagatik zerga honen aitorpena aurkezten duenean, edo aitortzera behartuta dagoenean.

67 - **Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik**: epaileen erabakiz seme-alaben urteko mantenua ordaintzen duen zergadunak ordaindutako kopuruen %15 kendu ahal izango du honako muga hauekin:

- 167,40 euro urtean, lehen seme-alabagatik.
- 207,30 euro urtean, bigarren seme-alabagatik.
- 350,40 euro urtean, hirugarren seme-alabagatik.
- 414,00 euro urtean, laugarren seme-alabagatik.
- 514,20 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzagatik.

68- **Aurreko ahaideengatik**: ondoko kasu hauetako bat gertatzen denean, aurreko ahaide bakoitzagatik 266,00 euroko kenkaria egingo da: urte natural osoan aurreko ahaidea zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi denean, edo urte osoan zehar egoitza batean modu jarraitu eta iraunkorrean bizi izanik ere, zergadunak ahaide horregatik egoitzari kopuruak ordaintzen dizkionean.

Kenkari hau ez da egingo aurreko ahaideak:

- Zergaldian lortu dituen urteko errentak, salbuetsiak sartu gabe, 8.979,60 eurokoak baino handiagoak direnean edo, bestela, beste familia unitate batekoa izanik, bertako kideetako edozeinek dagokion zergaldian lortutako urteko errentak, salbuetsiak sartu gabe, 8.979,60 eurotik gorakoak direnean.
- Delako zergaldiagatik zerga honen aitorpena aurkezten duenean, edo aitortzera behartuta dagoenean.

69 - **Desgaitasunagatik**: zergadun desgaitu bakoitzagatik eta, bere kasuan, desgaitasun egoeran egonik harekin bizi den aurreko edo ondorengo ahaide bakoitzagatik, ezkontidearengatik, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunagatik edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaide bakoitzagatik, euren adina edozein dela ere, honako kenkariak aplikatuko dira, betiere ahaide horiek zergaldian lortutako urteko errentak, salbuetsitakoak sartu gabe, 17.959,20 eurokoak baino handiagoak ez badira:

| Desgaitasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza | Kenkaria |
|---|---|
| %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa | 867,00 euro |
| %65ekoa edo handiagoa | 1.224,00 euro |
| %75ekoa edo handiagoa, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuta | 1.428,00 euro |
| %75ekoa edo handiagoa, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuta | 2.040,00 euro |

Era berean, lehenago aipatutako ahaide edo asimilatuen zerrendan sartzen ez den 65 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzagatik desgaitasunagatik ezarritako kenkariak aplikatuko dira zergadunarekin bizi bada eta bere urteko errentak 17.959,20 eurokoak baino txikiagoak badira, betiere minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza kontuan hartuta.

Desgaituak aitorpena aurkezten badu, berak aplika dezake kenkaria, edo bestela, harekin bizi den zergadunak aplikatzeko utzi dezake.

70 - **Mendekoak izateagatik**: zerguna edo harekin bizi den aurreko edo ondorengo ahaidea, ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna, edo zeharkako ahaidea, laugarren mailaraino, hau barne, mendeko pertsona denean, haietako bakoitzagatik honako kenkariak aplikatuko dira, betiere ahaide horiek zergaldian lortutako urteko errentak, salbuetsitakoak sartu gabe, 17.959,20 eurokoak baino handiagoak ez badira:

| Mendekotasunaren kalifikazioa | Kenkaria |
|---|---|
| Mendekotasun txikia | 1.224,00 euro |
| Mendekotasun ertaina | 1.428,00 euro |
| Mendekotasun handia | 2.040,00 euro |

Era berean, lehenago aipatutako ahaide edo asimilatuen zerrendan sartzen ez den 65 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzagatik mendekotasunagatik ezarritako kenkariak aplikatuko dira zergadunarekin bizi bada eta bere urteko errentak 17.959,20 eurokoak baino txikiagoak badira, betiere mendekotasun maila kontuan hartuta.

Mendekotasun egoeran dagoen pertsonak ez badu kenkari hau aplikatzen, harekin bizi den zergadunak aplika dezake.

Mendekotasunagatik araututa dagoen kenkaria bateraezina da desgaitasunaren kenkariarekin.

71- **Zergadunaren adinagatik**:

- 65 urtetik gorako adinagatik: 319,00 euro.
- 75 urtetik gorako adinagatik: 584,00 euro.

## KENKARIA PERTSONA DESGAITUAREN ONDARE BABESTUARI EKARPENAK EGITEAGATIK

72- Zergadunek %30eko kenkaria izango dute pertsona desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik, urteko muga 3.000,00 eurokoa izanik. Pertsona desgaituen ondarea babesteari buruzko 41/2003 Legean araututa dagoen ondare babestua behar du izan.

## OHIKO ETXEBIZITZAREN KENKARIAK

73 eta 74- **Ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik**:

- Oro har: ordaindutako kopuruen %20. Kenkariaren urteko muga 1.600,00 eurokoa da.
- Ordaindutako kopuruen %25, 2.000,00 euroko mugarekin urtean, baldintza hauetako bat betetzen duten zergadunak badira:
- 35 urte baino gutxiago edukitzea.
- Familia ugariaren titularrak izatea.

Batera tributatzea aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 35 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, %25eko portzentajea aplikatuko da, eta muga 2.000,00 euro izango da.

75- **Etxebizitza erosteagatik**: etxebizitza bakoitzagatik honako datuak jarriko dira: **Datu orokorrak**: titularitate portzentajea, kalea, zenbakia, oina, udalerria, erosketa edo birgaiketaren data (urtea, hilabetea eta eguna), erosketa edo birgaiketaren balioa eta finantzaketa era (berrinbertsioa, etxebizitza kontua, mailegua, baliabide propioak)

Ohiko etxebizitza erosi bada, eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera kenkari hau aplikatu bada beste etxebizitza bat erosteagatik, "Aurreko etxebizitzetan erabilitako kreditu fiskala" laukian aurreko etxebizitza horregatik data horretatik aurrera inbertsio kontzeptupean aplikatu den kenkaria adieraziko da. Zergaduna berrinbertsioaren kenkarira biltzen denean, lauki honi gehituko zaio berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabaziari %18 aplikatuta ateratzen den emaitza (edo %15, baldin eta ohiko etxebizitza 1999ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra bitartean saldu bada).

"Oraingo etxebizitzarako dagoen kreditu fiskala" laukian eragiketa honen emaitza jarriko da: 36.000 euro ken "Aurreko etxebizitzetan erabilitako kreditu fiskala" laukian adierazitako zenbatekoa.

Maileguen datuak: mailegu-emailea, mailegua eman den eguna (urtea, hilabetea eta eguna), hasierako zenbatekoa, titularitate portzentajea (T), amortizazioa (C) eta ordaindutako interesak (B). Amortizazioa eta ordaindutako interesak portzentaje kengarriarekin eta titularitate portzentajearekin biderkatuz gero, amortizazioa (E) eta interes kengarriak (D) aterako dira.

Konturako ordainketen datuak (F): ekitaldian egin diren eta kenkarirako eskubidea ematen duten konturako ordainketen zenbatekoa jarriko da.

75- Inbertsioaren kenkaria: Ohiko etxebizitza erosteko ekitaldian inbertitutako kopuruen %0,18 kentzen da (D+E+F). Izan dituen gastuak ere sartu behar dira, baita erosketarako erabilitako besteren kapitalen interesak eta besteren finantzaketagatik sortu zaizkion gastuak ere. Abenduaren 31n zergadunak 35 urte baino gutxiago baditu edo familia ugariaren titular edo kide bada, ekitaldian inbertitutako kopuruen %23 kenduko da (D+E+F).

Ohiko etxebizitza erosteagatik urtean aplikatzen den gehienezko kenkaria 2.160,00 eurokoa da. 35 urtetik beherakoek edo familia ugariaren titularrek gehienez ere 2.760,00 euroko kenkaria aplika dezakete urtean.

Batera tributatzea aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 35 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, %23ko portzentajea aplikatuko da, eta muga 2.760,00 euro izango da.

Zergadunak ohiko etxebizitza erosteagatik zergaldi jarraituetan egin dituen kenkarien baturak ezin du 36.000,00 euroko zifra gainditu. Zifra hori, dena den, berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabazien zenbatekoari %18 aplikatu ondoren ateratzen den emaitzarekin gutxituko da, hala badagokio (ohiko etxebizitza 1999ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra bitartean saldu bada, %15 aplikatuko zaio). 36.000 euroko muga hori banaka aplikatzen zaie zergadunei, nahiz eta 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen horiek elkarrekin erosi ohiko etxebizitza.

76- **Etxebizitza kontuan inbertitzeagatik**: ekitaldiko inbertsioa x 0,18. Urtean 2.160,00 euro kendu daitezke gahienez.

"Erabilitako kreditu fiskala" laukian 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera inbertsio kontzeptuagatik aplikatu diren kenkarien batura jarri behar da (etxebizitza kontuagatik egin diren kenkariak barruan sartuz). Zergadunak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu badu berrinbertsioaren salbuespena, eta ohiko etxebizitza 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen saldu bada, lauki honi ere berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabaziaren %15 gehituko zaio. Zergadunak berrinbertsioaren salbuespena aplikatzen badu 2007ko urtarrilaren 1etik 2010. urtea amaitu bitartean ohiko etxebizitza saldu duelako, lauki honi berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabaziaren %18 gehituko zaio.

Barruan sartuko dira, baita ere, ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabiltzeagatik eta zergadunaren kargura joan diren besteren finantzaketak sortutako gastuengatik 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatutako kenkariak.

| | IFZ | 109 PFEZ | 3. likidazio orria |
|---|---|---|---|

4

## JARDUERA EKONOMIKOAK SUSTATZEKO KENKARIAK

**Inbertsioengatik eta bestelako jarduerengatik**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| *Aurreko ekitaldietako kenkariak, kuotan mugatuak (7. eranskineko [33] laukia)* | | | 82 | |
| ***Ekitaldiko kenkariak, kuotan mugatuak*** | Kenkariaren oinarria | % | | |
| Aktibo finko material berriak | | % 10 | 83 | |
| BGAE, PP eta enplegu mutualitateei egindako kontribuzio enpresarialak | | % 10 | 84 | |
| Lanbide heziketa | | % 10 | 85 | |
| Inbertsioak berrikuntza ez-teknologikoko jarduerei atxikitako ibilgetuan | | % 10 | 86 | |
| Liburugintza eta zine produkzioak (koproduktore finantzarioa) | | % 5 | 87 | |
| Teknologia Garbien Euskal Zerrendako inbertsioak | | % 30 | 88 | |
| Zine produkzioak (produktorea), eta berrikuntza ez-teknologikoko jardueretako langileria gastuak | | % 20 | 89 | |
| Ingurumena, kultur ond. babesa, energia, lanbide heziketa (soberakina), berdintasun planak, eta BERRIKUNTZA EZ-TEKNOLOGIKOKO JARDUERAK | | % 15 | 90 | |
| Enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei enpresarien kontribuzio edo ekarpenek zergaldian izan DUTEN GEHIKUNTZA | | % 50 | 91 | |

| Enplegu sorrera | Batez besteko plantila | | | Kontratatutako pertsona kopurua | Zenbatekoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Oraingo ekitaldia | Aurreko ekitaldia | Gehikuntza | | | | |
| Enplegu orokorra | | | | | x 4.600,00 € | 93 | |
| Enplegu berezia | | | | | x 8.600,00 € | 94 | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| *Aurreko ekitaldietako kenkariak, kuotan mugatu gabeak ( 7. eranskineko [40] laukia)* | | | 95 | |
| ***Ekitaldiko kenkariak, kuotan mugatu gabeak*** | Kenkariaren oinarria | % | | |
| I + G jarduerei edo berrk. tek.koei atxikitako ibilgetuan egindako inbertsioak | | % 10 | 96 | |
| Ekitaldiko I + G-ren soberakina | | % 50 | 97 | |
| I + G unibert. proiektuetan, eta langileria gastuak I + G edo berr. teknologikoan | | % 20 | 98 | |
| Berrikuntza Teknologikoko gastuen soberakina | | % 20 | 99 | |
| Ekitaldiko I + G | | % 30 | 100 | |
| **Langileek enpresan parte hartzeagatik** | | | | |
| Zergaldian ordaindutako zenbatekoak | | % 10 | 101 | |

**Enpresako aurrezki-kontuan inbertitzeagatik**

| Titularra | Entitatea | Kontu zk. ( 10 digitu ) | Noiz irekia | Ekitaldiko inbertsioa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | X 0,10 | 102 | |

## KENKARIAK DOHAINTZENGATIK ETA LEHENTASUNEZKO JARDUERENGATIK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Mezenasgoari eta lehentasunezko jarduerei egindako dohaintzak | | % 30 | 103 | |
| Zuzeneko zenbatespenaren arabera tributatzen duten lehentasunezko jarduerak | | % 18 | 104 | |

## BESTELAKO KENKARIAK

| | | |
|---|---|---|
| IETak eta EABak ([08] eta [11] laukiak) | 105 | |
| Nazioarteko gardentasun fiskalean dauden sozietateak | 106 | |
| Bizitza edo elbarritasun kontratu indibidualei aplikatzen zaien konpentsazio fiskala | 107 | |
| | | |
| KENKARIAK GUZTIRA ( [65] etik [107] ra arteko laukien batura) | 108 | |
| KUOTA LIKIDOA ( [64] – [108] ). Negatiboa bada, jarri zero. | 109 | |

## KONTURAKO ORDAINKETAK (ATXIKIPENAK, KONTURAKO SARRERAK ETA ORDAINKETA ZATIKATUAK)

| | | |
|---|---|---|
| Lana (1. eranskineko [19] laukia) | 110 | |
| Kapital higiezina (2. eranskineko [25] laukia) | 111 | |
| Kapital higigarria (3. eranskineko [10] eta [24] laukien batura) | 112 | |
| Jarduera ekonomikoak (5. eranskineko [45] laukiaren eta 6. eranskineko [31] laukiaren arteko batura) | 113 | |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak (inbertsio fondoak, etab.) | 114 | |
| Sariak | 115 | |
| IETak eta EABak ([09] eta [12] laukiak) | 116 | |

| | | |
|---|---|---|
| KONTURAKO ORDAINKETAK, GUZTIRA ([110] etik [116] ra arteko laukien batura) | 117 | |
| Aurreko ekitaldietako kenkariak egiteko eskubidea galtzeagatik izandako gehikuntza | 118 | |
| KUOTA DIFERENTZIALA ([109] – [117] + [118] ) | | |
| Itzultzea (itzuli behar den zenbatekoak ezin du [117] laukian adierazitako kopurua gainditu) | 119 | |
| Ordaintzea | 120 | |

ADMINISTRAZIOAREN ALEA

| | | | |
|---|---|---|---|
| JARDUERA EKONOMIKOAK SUSTATZEKO KENKARIAK | | | |
| **Inbertsioengatik eta bestelako jarduerengatik** | | | |
| *Aurreko ekitaldietako kenkariak, kuotan mugatuak (7. eranskineko 33 laukia)* | | | 82 |
| ***Ekitaldiko kenkariak, kuotan mugatuak*** | Kenkariaren oinarria | % | |
| Aktibo finko material berriak | | % 10 | 83 |
| BGAE, PP eta enplegu mutualitateei egindako kontribuzio enpresarialak | | % 10 | 84 |
| Lanbide heziketa | | % 10 | 85 |
| Inbertsioak berrikuntza ez-teknologikoko jarduerei atxikitako ibilgetuan | | % 10 | 86 |
| Liburugintza eta zine produkzioak (koproduktore finantzarioa) | | % 5 | 87 |
| Teknologia Garbien Euskal Zerrendako inbertsioak | | % 30 | 88 |
| Zine produkzioak (produktorea), eta berrikuntza ez-teknologikoko jardueretako langileria gastuak | | % 20 | 89 |
| Ingurumena, kultur ond. babesa, energia, lanbide heziketa (soberakina), berdintasun planak, eta BERRIKUNTZA EZ-TEKNOLOGIKOKO JARDUERAK | | % 15 | 90 |
| Enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei enpresarien kontribuzio edo ekarpenek zergaldian izan DUTEN GEHIKUNTZA | | % 50 | 91 |

| Enplegu sorrera | Batez besteko plantila: Oraingo ekitaldia | Aurreko ekitaldia | Gehikuntza | Kontratatutako pertsona kopurua | Zenbatekoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Enplegu orokorra | | | | | x 4.600,00 € | 93 |
| Enplegu berezia | | | | | x 8.600,00 € | 94 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Aurreko ekitaldietako kenkariak, kuotan mugatu gabeak ( 7. eranskineko 40 laukia)* | | | 95 |
| ***Ekitaldiko kenkariak, kuotan mugatu gabeak*** | Kenkariaren oinarria | % | |
| I + G jarduerei edo berrk. tek.koei atxikitako ibilgetuan egindako inbertsioak | | % 10 | 96 |
| Ekitaldiko I + G-ren soberakina | | % 50 | 97 |
| I + G unibert. proiektuetan, eta langileria gastuak I + G edo berr. teknologikoan | | % 20 | 98 |
| Berrikuntza Teknologikoko gastuen soberakina | | % 20 | 99 |
| Ekitaldiko I + G | | % 30 | 100 |
| **Langileek enpresan parte hartzeagatik** | | | |
| Zergaldian ordaindutako zenbatekoak | | % 10 | 101 |

**Enpresako aurrezki-kontuan inbertitzeagatik**

| Titularra | Entitatea | Kontu zk. ( 10 digitu ) | Noiz irekia | Ekitaldiko inbertsioa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | X 0,10 | 102 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| KENKARIAK DOHAINTZENGATIK ETA LEHENTASUNEZKO JARDUERENGATIK | | | |
| Mezenasgoari eta lehentasunezko jarduerei egindako dohaintzak | | % 30 | 103 |
| Zuzeneko zenbatespenaren arabera tributatzen duten lehentasunezko jarduerak | | % 18 | 104 |
| BESTELAKO KENKARIAK | | | |
| IETak eta EABak (08 eta 11 laukiak) | | | 105 |
| Nazioarteko gardentasun fiskalean dauden sozietateak | | | 106 |
| Bizitza edo elbarritasun kontratu indibidualei aplikatzen zaien konpentsazio fiskala | | | 107 |
| KENKARIAK GUZTIRA ( 65 etik 107 ra arteko laukien batura) | | | 108 |
| KUOTA LIKIDOA ( 64 – 108 ). Negatiboa bada, jarri zero. | | | 109 |

| | |
|---|---|
| **KONTURAKO ORDAINKETAK (ATXIKIPENAK, KONTURAKO SARRERAK ETA ORDAINKETA ZATIKATUAK)** | |
| Lana (1. eranskineko 19 laukia) | 110 |
| Kapital higiezina (2. eranskineko 25 laukia) | 111 |
| Kapital higigarria (3. eranskineko 10 eta 24 laukien batura) | 112 |
| Jarduera ekonomikoak (5. eranskineko 45 laukiaren eta 6. eranskineko 31 laukiaren arteko batura) | 113 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak (inbertsio fondoak, etab.) | 114 |
| Sariak | 115 |
| IETak eta EABak (09 eta 12 laukiak) | 116 |
| KONTURAKO ORDAINKETAK, GUZTIRA (110 etik 116 ra arteko laukien batura) | 117 |
| Aurreko ekitaldietako kenkariak egiteko eskubidea galtzeagatik izandako gehikuntza | 118 |
| KUOTA DIFERENTZIALA (109 – 117 + 118 ) | |
| Itzultzea (itzuli behar den zenbatekoak ezin du 117 laukian adierazitako kopurua gainditu) | 119 |
| Ordaintzea | 120 |

AITORTZAILEAREN ALEA

## ZERGAPETZE BIKOITZAREN KENKARIAK

78 - **Nazioarteko zergapetze bikoitzarengatik**: zergadunak lortutako errenten artean atzerrian lortu eta zergapetu diren etekinak edo ondare irabaziak daudenean, kenkaria honako kopuru hauetan txikiena izango da:

a) Zerga honen antzeko edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren pareko zerga batengatik etekin edo ondare irabazi horien gainean atzerrian ordaindu den zenbateko efektiboa.

b) Atzerrian lortutako errentari batez besteko karga tasa, orokorra edo aurrezpenarena, aplikatuta ateratzen den emaitza, errenta hori oinarri likidagarri orokorrean edo aurrezpenaren oinarri likidagarrian sartu den.

## KENKARIA LANGILEEN SINDIKATUEI ORDAINDUTAKO KUOTENGATIK ETA ALDERDI POLITIKOEN ALDEKO KUOTA ETA EKARPENENGATIK

79 - **Langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik**: zergadunek %30eko kenkaria egin dezakete langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik.

80 - **Alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik:** zergadunek %30eko kenkaria egin dezakete alderdi politikoetako afiliazio kuotengatik eta haien alde egindako ekarpenengatik.

## KENKARIA ENPRESEN GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMEI EGINDAKO EKARPENEGATIK

81 – **Kenkaria enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik:** 2007ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2011ko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietan, zergadunek %50eko kenkaria aplikatu ahal izango dute kuota osoan, gehienez 200,00 euroko mugarekin, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresnei zergaldian egindako ekarpenengatik, betiere 10/2006ko Foru Arauan aurkitzen den hamazazpigarren Xedapen Iragankorrean jasotzen diren baldintzak betetzen baldin baditu.

## JARDUERA EKONOMIKOAK SUSTATZEKO KENKARIAK

82 tik 100 ra - **Kenkariak inbertsioengatik eta bestelako jarduerengatik**: Jarduera ekonomikoak zuzeneko zenbatespenaren erregimenean egiten badira, aplikagarriak izango dira Sozietateen gaineko Zergaren araudiak aktibo finko material berrietan inbertsioak sustatzeko eta hainbat jarduera egiteko aurreikusten dituen kenkariak, betiere kenkari portzentaje eta muga berdinekin.

Kenkari horiek aplikatzeko Sozietateen gaineko zergaren araudiak ezartzen dituen mugak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoari aplikatuko zaizkio jarduera ekonomikoen etekinek osatutako oinarri ezargarri orokorrari dagokion zatian.

Kuota osoa txikiegia izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak ondorengo lehen bost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplika daitezke, baina muga berdinak errespetatuz.

101 - **Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik**: zergadunak lan egiten duen entitateko edo sozietate talde bereko beste enpresa bateko akzioak edo partaidetzak erosteko edo harpidetzeko zergaldian zehar dirutan ordaindutako kopuruengatik %10eko kenkaria aplikatuko da, 1.800,00 euroko mugarekin urtean. Gainera, honako baldintzak bete behar dira:

- Baloreak ezin dira merkatu arautuetan negoziatu.
- Entitateak enpresa txiki edo ertainak izango dira, Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera.
- Akzioak edo partaidetzak eskuratzeko aukera entitateetako langile guztiei eskaini behar zaie, baldintza berdinetan eta inor diskriminatu gabe.
- Langile bakoitzak ezkontidearekin batera, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunarekin batera, eta laugarren mailarainoko ahaideekin batera, hauek barne, entitatean edo taldeko beste edozeinetan zuzenean edo zeharka duen partaidetza ezin da %5etik gorakoa izan.
- Akzio edo partaidetzak 5 urtez eduki behar dira gutxienez.

102 - **Kenkaria "enpresako aurrezki-kontuagatik"**: kreditu entitateen kontuetan gordailuan utzitako kopuruengatik %10eko kenkaria aplikatuko da, behin bakarrik zergadun bakoitzeko, eta 2.000 euroko mugarekin urtean, baldin eta kenkarirako eskubidea ematen duten kopuruak jarduera ekonomiko bati ekiteko beharrezkoak diren gastu eta inbertsioei aurre egiteko bakarrik erabiltzen badira kontua ireki den egunetik hasi eta 3 urteko epea igaro baino lehen (gastu era inbertsio horiek izango dira zergadunak egiten dituenak jarduera ekonomiko bat bere kabuz, ohikotasunez eta zuzenean burutzeko edo Sozietateen gaineko Zergari lotutako entitate berrien partaidetzak harpidetzeko).

Baldintza hauek bete behar dira:
- Zergaduna ez aritzea lehenago jarduera ekonomiko horretan, ez zuzenean ez zeharka.
- Entitate bateko partaidetzak harpidetzen badira: 1) Entitateak benetan jarduera bat egitea. 2) Zergadunak gutxienez %20ko partaidetza edukitzea kapital sozialean, entitatean zuzendaritza-lanak egitea edo lanaldi osoko lan kontratua izatea, eta horregatik bere oinarri ezargarriaren %50 gainditzen duen ordainsaria jasotzea. 3) Entitateak ondare sozietate bat ez izatea.
- Jarduera ekonomikoari propio dagozkion ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak 3 urteko epean egiten hastea ohikotasunez, kontua ireki den egunetik aurrera.

## KENKARIAK DOHAINTZENGATIK ETA LEHENTASUNEZKO JARDUERENGATIK

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko araudian jasotakoak aplikatuko dira.
103 - Mezenasgoaren entitate onuradunei dohaintzan emandako zenbatekoek eta lehentasunezko jardueretara bideratutakoek %30eko kenkaria izango dute.
104 - Zuzeneko zenbatespen erregimenean dauden enpresariek %18ko kenkaria izango dute lehentasunezkotzat aitortutako jardueratara bideratutako kopuruengatik, babes publizitarioko kontratuen indarrez ordaindutako kopuruak barne.

Kenkari honen oinarriak ezin du gainditu zergaren oinarri likidagarriaren %30.

## BESTELAKO KENKARIAK

105 - **EABek edota IETek egotzitako kenkari eta hobariak**: EABek edota IETek egotzitako kenkari eta hobariei egingo zaie kenkaria.
106 - **Kenkariak nazioarteko gardentasun fiskalaren erregimenean**: Dibidenduak edo mozkin partaidetzak banatzeagatik atzerrian ordaindutako zerga edo karga kendu ahal izango da kuotatik, oinarri ezargarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatian betiere. Bi modutara izan daiteke zerga hori atzerrian ordaindua: zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat aplikatuz edo dagokion herrialde edo lurraldeko legeriari jarraituz.
Erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatuta dauden herrialde edo lurraldeetan ordaindutako zergek ez dute inoiz kenkaririk izango.
Kenkari hau ezin da izan oinarri ezargarrian egotzitako errenta positiboagatik Espainian ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa baino handiagoa.
107 - **Kenkaria bizitza edo elbarritasun aseguru kontratu indibidualei aplikatzen zaien konpentsazio fiskalagatik**:
Zergadunek kapital diferitu bat jaso badute 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatutako bizitza edo elbarritasun aseguru kontratu indibidual baten ondorioz, eta abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak etekin horietarako aurreikusten duen zerga erregimena okerrago ateratzen bada Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 8/1998 Foru Arauak araututakoa baino, zergadun horiek dagokien kenkaria aplikatuko dute konpentsazio fiskal moduan.
108 - **Kenkariak, guztira**: 65 etik 107 ra arteko laukien batuketa egingo da.

## KUOTA LIKIDOA

109 - **Kuota likidoa**: 64 - 108 . Kuota likidoak ezin du inoiz negatiboa izan.

## KONTURAKO ORDAINKETAK (ATXIKIPENAK, KONTURAKO SARRERAK ETA ORDAINKETA ZATIKATUAK)

110 tik 116 era - Konturako ordainketak dagokien laukian adieraziko dira, beren izaeraren arabera.

## AURRETIK EGINDAKO KENKARIRAKO ESKUBIDEA GALTZEA

118 - Hemen aurreko urteetan egin diren baina, beharrezko baldintzak ez betetzeagatik, jada aplikatu ezin daitezkeen kenkarien batura adieraziko da. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 26. artikuluan aipatzen dituen berandutza interesak ere gehituko dira..

## KUOTA DIFERENTZIALA

Kuota diferentziala kalkulatzeko honako kontzeptuak gutxitu behar dira kuota likidotik: atxikipenak, konturako sarrerak, ordainketa zatikatuak eta EABek eta IETek atxikipen eta konturako sarrera gisa egotzitako zenbatekoak. Kuota diferentzialari aurreko ekitaldietako kenkarietarako eskubidea galtzeagatik izandako gehikuntza gehituko zaio ( 118 laukian adierazia).
119 - **Itzuli beharreko kuota diferentziala**: itzuli behar den zenbatekoa jarriko da. Lauki honetan adierazten den zenbatekoa ezin da 117 laukian adierazitakoa baino handiagoa izan.
120 - **Kuota diferentzial positiboa**: ordaindu behar den zenbatekoa jarriko da.

| | IFZ | 1. eranskina<br>109 PFEZ | Lanaren<br>etekinak | *8400100622012* |
|---|---|---|---|---|

| | | % 100eko integrazioa | | | | % 100etik beherako integrazioa | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | |
| 02 | Desgaituaren gakoa | | | | | | | | |
| 03 | Ordaintzailearen IFZ | | | | | | | | |
| 04 | Ordaintzailearen izen-abizenak/Sozietate izena | | | | | | | | |
| | Jarri "X" ezintasun, erretiro, alarguntasun edo langabezi errentak badira | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | | | | |
| | ETEKIN OSOAK | | | | | | | | |
| 05 | Diruzkoak | | | | | | | | |
| 06 | Gauzazkoak: BGAEen egozpena | | | | | | | | |
| 07 | Gauzazkoak: gainerakoak | | | | | | | | |
| 08 | Sarreren batura ( 05 etik 07 ra) | | | | | | | | |
| 09 | Sorreraldia | | | | | | | | |
| 10 | Integrazio portzentajea | | | | | % | % | % | |
| 11 | Etekin osoa ( 08 edo 08 x 10 ) | | | | | | | | |
| | GASTUAK | | | | | | | | |
| 12 | Gizarte Segurantza eta funtzionarioen derrigorrezko mutualitateak | | | | | | | | |
| 13 | Eskubide pasiboak eta umezurtzen eskolak | | | | | | | | |
| 14 | Kargu politikoen ekarpenak | | | | | | | | |
| 15 | Gastuen batura ( 12 tik 14 ra) | | | | | | | | Guztira |
| 16 | DIFERENTZIA ( 11 – 15 ) | | | | | | | | 18 |
| 17 | ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK | | | | | | | | 19 |

| IFZ | 1. eranskina 109 PFEZ | Lanaren etekinak | *8400100622012* |
|---|---|---|---|

| | | % 100eko integrazioa | | | | % 100etik beherako integrazioa | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | |
| 02 | Desgaituaren gakoa | | | | | | | | |
| 03 | Ordaintzailearen IFZ | | | | | | | | |
| 04 | Ordaintzailearen izen-abizenak/Sozietate izena | | | | | | | | |
| | Jarri “X” ezintasun, erretiro, alaguntasun edo langabezi errentak badira | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | | | | |
| | ETEKIN OSOAK | | | | | | | | |
| 05 | Diruzkoak | | | | | | | | |
| 06 | Gauzazkoak: BGAEen egozpena | | | | | | | | |
| 07 | Gauzazkoak: gainerakoak | | | | | | | | |
| 08 | Sarreren batura ( 05 etik 07 ra) | | | | | | | | |
| 09 | Sorreraldia | | | | | | | | |
| 10 | Integrazio portzentajea | | | | | % | % | % | |
| 11 | Etekin osoa ( 08 edo 08 x 10 ) | | | | | | | | |
| | GASTUAK | | | | | | | | |
| 12 | Gizarte Segurantza eta funtzionarioen derrigorrezko mutualitateak | | | | | | | | |
| 13 | Eskubide pasiboak eta umezurtzen eskolak | | | | | | | | |
| 14 | Kargu politikoen ekarpenak | | | | | | | | |
| 15 | Gastuen batura ( 12 tik 14 ra) | | | | | | | | Guztira |
| 16 | DIFERENTZIA ( 11 – 15 ) | | | | | | | | 18 |
| 17 | ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK | | | | | | | | 19 |

*Inprimaki honetan idazten diren datuak Foru Ogasunaren fitxategi informatikoetan gordeko dira zerga helburuetarako, 15/1999 Lege Organikoak esandako eran. Errotaburu pasealekua 2, Donostia.



**NOLA BETE ERANSKINA**

Eranskin hau LAN PERTSONALAREN ETEKINAK jaso dituzten zergadunek beteko dute. Idazmakinaz edo boligrafoz beteko da, gainazal gogor baten gainean idatziz eta letra larriak erabiliz
Lan pertsonalaren etekin kopuru jakin bat adierazteko prestatu da eranskina. Beraz, zergadunak etekin gehiago izan baditu, behar adina inprimaki aurkeztuko ditu.
Lan etekin bakoitzeko zutabe bana beteko da, jarraian azaltzen diren datuak adieraziz.

## DATU OROKORRAK

Lanaren etekinak, horiek jasotzeko eskubidea sortarazi duenari dagozkio. Aldiz, pentsioak eta hartzeko pasiboak, beren alde aitortuak dituzten pertsonei dagozkie.

Jaso diren sarrerak oso-osorik integratuko dira oinarri ezargarrian. Denboran zehar modu irregularrean lortutakoak, ordea, %100etik beherako portzentajean integratuko dira.

**01** - **Jasotzailearen gakoa**: "A" jarriko da jasotzailea aitortzailea denean, "E" ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikotelaguna denean, eta "S1", "S2"..... mota honetako etekinak jaso dituena adingabeko seme-alaba denean.

**02** - **Desgaituaren gakoa**: bakar-bakarrik aktiboan dauden langile desgaituek (ez pentsiodunek) jarriko dute gako hauetako bat, beren minusbaliotasun mailaren arabera:

- "M1": minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean.
- "M2": minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean eta mugikortasuna mugatua dutenean. Mugikortasun mugatua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortu dituztenean. Baita ere, langile aktibo desgaituen minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa denean.

**03** eta **04** - Identifikatu ordaintzailea, IFZ eta izen-abizenak edo sozietate izena adieraziz.

## ETEKIN OSOA

**05** - **Diruzkoak**: dirutan jasotako ordainsariak adieraziko dira.

**06** - **Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei, pentsio planei, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei, aseguratutako aurreikuspen planei eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planei egindako kontribuzio edo ekarpenen egozpena**: borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen bazkide babesleak edo pentsio planen, 3002/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planen, gizarte aurreikuspeneko mutualitateen, aseguratutako aurreikuspen planen eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planen sustatzaileak egindako ekarpenak adieraziko dira.

**07** - **Gauzazkoak**: **gainerakoak**: honako batuketa egingo da: gauzazko ordainsariaren balorazioa, abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 62. artikuluan jasotzen dituen erregelen arabera egina, gehi konturako sarrera.

Zergadun berberari diruz eta gauza bidez ordaindu zaizkionean lan errentak, ordaintzaileak errenta guztien gainean egingo du atxikipena. Horrelakoetan, gauzen bidezko ordainketengatik ez da konturako sarrerarik izango.

**08** - **Sarreren batura**: 05 + 06 + 07. Sarrera guztien batura jarriko da.

**09** - **Sorreraldia**: etekinak %100etik beherako portzentajean integratzen direnean bakarrik beteko da. %100etik beherako integrazio portzentajea duten etekinen artean honako hauek bereiztuko dira:

a) abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen direnak (toki aldaketagatik edo kontratua elkarren arteko adostasunez amaitzeagatik ordaindutako zenbatekoak, etab.). Horrelakoetan ez da sorreraldirik jarriko.

b) 2 urtetik gorako epean sortutakoak: zenbat urtetan sortu diren adieraziko da.

Sorreraldia 2 urtetik gorakoa dela agerian egon arren, epea ezin bada zehatz-mehatz finkatu, 3 urte jarriko da.

**10** - **Integrazio portzentajea**: adierazi zein portzentajetan integratzen diren etekinak oinarri ezargarrian abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera: Hona hemen laburki:

- 2 eta 5 urte bitartean sortutako etekinak, aldizka edo noiztik behin lortu ez badira: %60.
- 5 urtetik gorako epean sortutako etekinak, edo erregelamenduz denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen direnak: %50.
- Gizarte Segurantzatik, funtzionarioen mutualitate orokorretatik, umezurtzen eskoletatik, BGAEetatik, pentsio planetatik, 3002/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planetatik, aurreikuspen plan aseguratuetatik , enpresen gizarte aurreikuspeneko planetatik eta mendekotasun aseguruetatik jasotako prestazioak:

a) Estalitako kontingentziengatik (erretiro, heriotza, elbarritasunagatik) hartzen diren prestazioak kapital moduan jaso badira, lehen ekarpenetik 2 urte baino gehiago igaro direnean (prestazioa elbarritasun edo mendekotasunagatik jasotzen bada, epe hori ez da exijitzen): %60.

b) Lehen ordainketatik edo hurrengo bakoitzetik bost urte igaro ondoren jasotako kopuruak: %60.

- Aseguru kolektiboak:

1. Enpresarien ekarpenak prestazioak jaso dituzten pertsonei egotzi zaizkienean:
   a) Jubilatzeagatik kapital modura jasotako prestazioa bada eta hari dagozkion primak epe hauetan ordaindu badira:
      - 2 urtetik beherako epean, jasotzen diren egunetik hasita: %100.
      - 2 urtetik gorako epean, jasotzen diren egunetik hasita: %60.
      - 5 urtetik gorako epean, jasotzen diren egunetik hasita: %25.
      - 8 urtetik gorako epean, jasotzen diren egunetik hasita, baldin eta ordaindutako primek aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa gordetzen badute: %25 (Portzentaje hau prestazioen etekin osoari aplikatzen zaio).
   b) Baliaezintasunagatik kapital modura jasotako prestazioa bada:
      - Erabateko baliaezintasuna edo baliaezintasun handia: %25.
      - Bestelako baliaezintasun mailak: %60.
      - Prestazioak 8 urtetik gorako antzinatasunaz hitzartutako aseguru kontratuetatik datozenean, baldin eta ordaindutako primek aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa gordetzen badute: %25.

Era berean, tratamendu hori kapital moduan jasotako elbarritasun prestazioei aplikatuko zaie, arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko kontratuetatik eratorritakoak direnean.

2. Enpresarien ekarpenak prestazioak jaso dituzten pertsonei egotzi ez zaizkienean:
   a) Baliezintasun prestazioak badira: %60.
   b) Jaso baino bi urtetik gorako epean ordaindutako primei badagozkie: %60.

Aseguru entitateak desglosaturik adieraziko du zenbat eman duen ordaindutako prima bakoitzagatik.
Ordaindutako prima guztiengatik orotara zenbat etekin oso lortu diren agerikoa bada, zenbateko hori %100ean integratuko da.

**11** - **Etekin osoa**: 08 edo 08 x 10. Integrazio portzentajea %100 denean, etekin oso gisa 08 laukian adierazi den sarreren batura jarriko da. Integrazio portzentajea %100etik beherakoa denean, etekin osoa eragiketa honen emaitza izango da: 08 laukian adierazitako sarrerak bider 10 laukian adierazitako integrazio portzentajea.

## GASTUAK

**12** - **Gizarte Segurantza eta funtzionarioen derrigorrezko mutualitateak**: Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitateei egindako kotizazioak adieraziko dira, bai eta Gizarte Segurantzaren kontigentziak estaltzea beren gain hartua duten entitateei egindako ordainketak ere.

**13** - **Eskubide pasiboak eta umezurtzen eskolak**: eskubide pasiboen murrizketak eta umezurtzen eskolei egindako kotizazioak adieraziko dira.

**14** - **Kargu politikoen ekarpenak**: kargu politikoek beren erakunde politikoari egindako ekarpenak adieraziko dira. Zenbateko horien muga zeregin horretan lortutako etekin osoen %25 izango da, jasotakoa zergadunaren errenta iturri nagusia bada.

Kontzeptu honengatik gastu bezala kentzen diren kopuruak ez dira sartzen alderdi politikoen aldeko ekarpenengatik egiten den kenkariaren oinarrian.

**15** - **Gastuen batura**: 12 + 13 + 14 . Gastu guztien batura jarriko da.

**16** - **Diferentzia**: 11 - 15. Etekin osoaren eta gastu guztien baturaren arteko aldea adieraziko da.

16 laukietan adierazitako zenbatekoen batura 18 laukian jarriko da, eta 1. likidazio orriko 01 laukira eramango da gero.

## ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

**17** - Atxikipenak eta konturako sarrerak: egin diren atxikipenak eta konturako sarrerak batuko dira.

Atxikipenen eta konturako sarreren batura ( 17 laukietan adierazitakoena) 19 laukian jarriko da, eta 3. likidazio orriko 110 laukira eramango da gero.

IFZ

2. eranskina
109 PFEZ

# Kapital higiezinaren etekinak

*8400100722012*

## Etxebizitzaz besteko ondasun higiezinak lagatzeagatik lortutako etekinak (errentamenduak, etab.)

| | | % 100eko integrazioa | | | | | | Integr. < %100 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | Guztira |
| 02 | Errentan emandako higiezinaren helbidea (Kalea, etab.) - Ataria - Oina - Eskua | | | | | | | | |
| 03 | Udalerria - Probintzia | | | | | | | | |
| 04 | Errentariaren IFZ | | | | | | | | |
| 05 | Errentariaren izen-abizenak edo sozietate izena | | | | | | | | |
| 06 | ETEKINAK | | | | | | | | |
| 07 | Sorreraldia | | | | | | | | |
| 08 | Integrazio portzentajea | | | | | | | % | |
| 09 | Etekin osoa ( 06 edo 06 x 08 ) | | | | | | | | |
| 10 | Interesak | | | | | | | | |
| 11 | Estatukoak ez diren zergak | | | | | | | | |
| 12 | Formaliz. eta defentsa juridikoa | | | | | | | | |
| 13 | Artapena eta konponketa | | | | | | | | |
| 14 | Aseguru primak | | | | | | | | |
| 15 | Zerbitzuak eta hornidurak | | | | | | | | |
| 16 | Amortizazioa | | | | | | | | |
| 17 | Hobaria | | | | | | | | |
| 18 | GASTUAK ( 10 etik 17 ra arteko batura) (Gehienez 09 ) | | | | | | | | |
| 19 | Etekin garbia ( 09 – 18 ) | | | | | | | | |
| 20 | Atxikipena | | | | | | | | |
| 21 | Titularitate portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | Guztira |
| 22 | Etekin egozgarria ( 19 x 21 ) | | | | | | | | 24 |
| 23 | Atxikipen egozgarria ( 20 x 21 ) | | | | | | | | 25 |

## Etekinak etxebizitza errentan emateagatik

| | | % 100eko integrazioa | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 26 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | |
| 27 | Errentan emandako higiezinaren helbidea (Kalea, etab.) - Ataria - Oina - Eskua | | | | | | | | |
| 28 | Udalerria - Probintzia | | | | | | | | |
| 29 | Errentariaren IFZ | | | | | | | | |
| 30 | Errentariaren izen-abizenak edo sozietate izena | | | | | | | | |
| 31 | ETEKINAK | | | | | | | | |
| 32 | Hobaria | | | | | | | | |
| 33 | Interesak | | | | | | | | |
| 34 | Gastuak ( 32 tik 33 era arteko batura) (Gehienez 31 ) | | | | | | | | |
| 35 | Etekin garbia ( 31 – 34 ) | | | | | | | | |
| 36 | Titulartasun portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | Guztira |
| 37 | Etekin egozgarria ( 35 x 36 ) | | | | | | | | 38 |

IFZ

# 2. eranskina
# 109 PFEZ

# Kapital higiezinaren etekinak

*8400100722012*

| | Etxebizitzaz besteko ondasun higiezinak lagatzeagatik lortutako etekinak (errentamenduak, etab.) | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % 100eko integrazioa | | | | | | Integr. < %100 | |
| 01 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | Guztira |
| 02 | Errentan emandako higiezinaren helbidea (Kalea, etab.) - Ataria - Oina - Eskua | | | | | | | | |
| 03 | Udalerria - Probintzia | | | | | | | | |
| 04 | Errentariaren IFZ | | | | | | | | |
| 05 | Errentariaren izen-abizenak edo sozietate izena | | | | | | | | |
| 06 | ETEKINAK | | | | | | | | |
| 07 | Sorreraldia | | | | | | | | |
| 08 | Integrazio portzentajea | | | | | | | % | |
| 09 | Etekin osoa ( 06 edo 06 x 08 ) | | | | | | | | |
| 10 | Interesak | | | | | | | | |
| 11 | Estatukoak ez diren zergak | | | | | | | | |
| 12 | Formaliz. eta defentsa juridikoa | | | | | | | | |
| 13 | Artapena eta konponketa | | | | | | | | |
| 14 | Aseguru primak | | | | | | | | |
| 15 | Zerbitzuak eta hornidurak | | | | | | | | |
| 16 | Amortizazioa | | | | | | | | |
| 17 | Hobaria | | | | | | | | |
| 18 | GASTUAK (10etik 17 ra arteko batura) (Gehienez 09 ) | | | | | | | | |
| 19 | Etekin garbia ( 09 – 18 ) | | | | | | | | |
| 20 | Atxikipena | | | | | | | | |
| 21 | Titularitate portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | Guztira |
| 22 | Etekin egozgarria ( 19 x 21 ) | | | | | | | | 24 |
| 23 | Atxikipen egozgarria ( 20 x 21 ) | | | | | | | | 25 |

| | Etekinak etxebizitza errentan emateagatik | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | % 100eko integrazioa | | | | | | | |
| 26 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | |
| 27 | Errentan emandako higiezinaren helbidea (Kalea, etab.) - Ataria - Oina - Eskua | | | | | | | | |
| 28 | Udalerria - Probintzia | | | | | | | | |
| 29 | Errentariaren IFZ | | | | | | | | |
| 30 | Errentariaren izen-abizenak edo sozietate izena | | | | | | | | |
| 31 | ETEKINAK | | | | | | | | |
| 32 | Hobaria | | | | | | | | |
| 33 | Interesak | | | | | | | | |
| 34 | Gastuak (32 tik 33 era arteko batura) (Gehienez 31 ) | | | | | | | | |
| 35 | Etekin garbia ( 31 – 34 ) | | | | | | | | |
| 36 | Titulartasun portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | Guztira |
| 37 | Etekin egozgarria ( 35 x 36 ) | | | | | | | | 38 |

*Inprimaki honetan idazten diren datuak Foru Ogasunaren fitxategi informatikoetan gordeko dira zerga helburuetarako, 15/1999 Lege Organikoak esandako eran. Errotaburu pasealekua 2, Donostia.



**NOLA BETE ERANSKINA**

Eranskin hau KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK jaso dituzten zergadunek beteko dute. Idazmakinaz edo boligrafoz beteko da, gainazal gogor baten gainean idatziz eta letra larriak erabiliz.
Kapital higiezinaren etekin kopuru jakin bat adierazteko prestatu da eranskina. Beraz, zergadunak etekin gehiago izan baditu, behar adina inprimaki aurkeztuko ditu.
Kapital higiezinaren etekin bakoitzeko zutabe bana beteko da, jarraian azaltzen diren datuak adieraziz.

Kapital higiezinaren etekinak zergadunei egotziko zaizkie baldin eta etekin horien sorburu diren ondare elementuen, hau da, ondasun edo eskubideen titularrak beraiek badira Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauak 7. artikuluan dioenaren arabera.

## ETXEBIZITZAZ BESTEKO ONDASUN HIGIEZINAK LAGATZEAGATIK LORTUTAKO ETEKINA

### DATU OROKORRAK

Ondasun higiezin hiritar nahiz landatarrak edota horien gaineko eskubide errealak lagatzetik datozen etekin osotzat hartuko dira ondasun horiek errentan edo azpierrentan ematetik, edota erabilpen edo gozamen eskubideak eratu edo lagatzetik ondorioztatzen diren guztiak.

Etxebizitzaz besteko ondasun higiezinak lagatzeagatik jasotako zenbatekoak oso-osorik integratuko dira oinarri ezargarri orokorrean. Denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutakoak, ordea, %100etik beherako portzentajean integratuko dira.

**01** - **Jasotzailearen gakoa**: "A" jarriko da jasotzailea aitortzailea denean, "E" ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna denean, eta "S1", "S2"..... mota honetako etekinak jaso dituena adingabeko seme-alaba denean.

**02** eta **03** - Errentan emandako ondasun higiezinaren helbidea, udalerria eta probintzia adierazi behar dira.

**04** eta **05** - Jarri errentariaren IFZ eta izen-abizenak edo sozietate izena.

### ETEKIN OSOA

**06** - **Etekinak**: errentari edo azpierrentariarengandik, edota erabilpen edo gozamen eskubideen lagapen-hartzaile edo onuradunarengandik kontzeptu guztiengatik jasotako zenbateko osoa jarriko da, higiezinarekin batera lagatako ondasun guztiei dagokiena barne, baina kanpoan utziz Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

**07** - **Sorreraldia**: etekinak %100etik beherako portzentajean integratzen direnean bakarrik beteko da. %100etik beherako integrazio portzentajea duten etekinen artean honako hauek bereiziko dira:

a) Abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen direnak (ondasun higiezina traspasatzeagatik eta bertan eragindako kalteengatik jasotako kalte-ordainak). Horrelakoetan ez da sorreraldirik jarriko.

b) 2 urtetik gorako epean sortutakoak: zenbat urtetan sortu diren adieraziko da.
Sorreraldia 2 urtetik gorakoa dela agerian egon arren, epea ezin bada zehatz-mehatz finkatu, 3 urte jarriko da.

**08** - **Integrazio portzentajea**: adierazi zein portzentajetan integratzen diren etekinak oinarri ezargarrian abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 33. artikuluan xedatutakoaren arabera: Hona hemen laburki:

- 2 eta 5 urte bitartean sortutako etekinak: %60.
- 5 urtetik gorako epean sortutako etekinak, edo erregelamenduz denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat jotzen direnak: %50.

**09** - **Etekin osoa**: 06 edo 06 x 08. Integrazio portzentajea %100 denean, etekin oso gisa 06 laukian adierazi den sarreren batura jarriko da. Integrazio portzentajea %100etik beherakoa denean, etekin osoa eragiketa honen emaitza izango da: 06 laukian adierazitako sarrerak bider 08 laukian adierazitako integrazio portzentajea.

### GASTUAK

Honako hauek hartuko dira gastu kengarritzat:

**10** - Etekinen sorburu diren ondasunak, eskubideak edo erabilera nahiz gozamen ahalmenak erosi, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesak, eta gainerako finantzaketa gastuak.

**11** - **Estatukoak ez diren zergak**, konputatzen diren etekinetan edo horien sorburu diren ondasun edo eskubideetan eragiten badute eta zigortzaileak ez badira.

**12** - **Ondasunen errentamendu, azpierrentamendu, lagapen edo eraketa formalizatzeagatik sortutakoak eta ondasun, eskubide eta etekinen defentsa juridikotik eratorritakoak**.

**13** - **Artapen eta konponketa gastuak**. Ondasunak handitu edo hobetzeko gastuak ez dira sartuko.

**14** - Ondasun edo eskubideen gaineko **aseguru primak**: erantzukizun zibilekoak, sute edo lapurreten aurkakoak, kristalen apurketakoak, etab...

**15** - **Zerbitzu eta horniduretarako** zenbatekoak. Hirugarren batek zuzeneko edo zeharkako kontraprestazio gisa, edo zerbitzu pertsonalengatik, hala nola, administrazio, zaintza, atezaintza edo antzekoengatik, sortutako kopuruak ere hemen sartuko dira.

**16** - Ondasun higiezina eta honekin batera lagatako beste ondasunak **amortizatzera** zuzendutako zenbatekoak, beti ere beren benetako balio galerarekin bat badatoz.
Egindako amortizazioen baturak ezingo du ordaindutako erosketa balioa gainditu.

**17** - **Hobaria**: errentamendu kontratuak 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindakoak badira eta kontratuaren errenta berrikusteko eskubiderik ez badute Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak bigarren xedapen iragankorraren 11. apartatuko 7. erregelan ezarritakoa aplikatuta, ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoek %40ko hobaria izango dute.

**18** - **Gastuen batura**: 10 + 11 + 12 + 13 + 14 + 15 + 16 + 17.
Gastu kengarrien baturak ezin du ekarri, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

### ETEKIN GARBIA

**19** - **Etekin garbia**: 09 - 18. Etekin osoaren eta gastu guztien baturaren arteko aldea adieraziko da.

**22** - **Etekin egozgarria**: 19 x 21. Etekin garbia zergadunaren **titularitate portzentajearekin** biderkatuz lortuko da.
22 laukietan adierazitako etekin egozgarrien batura 24 laukian jarriko da, eta 1. likidazio orriko 04 laukira eramango da gero.

### ATXIKIPENAK

**20** - **Atxikipena**: egindako atxikipena jarriko da.

**23** - **Atxikipen egozgarria**: 20 x 21. Egindako atxikipena zergadunaren titularitate portzentajearekin biderkatuz lortuko da.
23 laukietan adierazitako atxikipen egozgarrien batura 25 laukian jarriko da, eta 3. likidazio orriko 111 laukira eramango da gero.

## ETEKINAK ETXEBIZITZA ERRENTAN EMATEAGATIK

### DATU OROKORRAK

Apartatu honetan bakar-bakarrik sartuko dira Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan etxebizitza errentamendutzat hartutakoetatik datozen etekinak.

Etxebizitza errentan emateagatik jasotako zenbateko guztiak aurrezpenaren oinarri ezargarrian sartuko dira.

**26** - **Jasotzailearen gakoa**: "A" jarriko da jasotzailea aitortzailea denean, "E" ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna denean, eta "S1", "S2"..... mota honetako etekinak jaso dituena adingabeko seme-alaba denean.

**27** eta **28** - Errentan emandako ondasun higiezinaren helbidea, udalerria eta probintzia adierazi behar dira.

**29** eta **30** - Jarri errentariaren IFZ eta izen-abizenak edo sozietate izena.

### ETEKIN OSOA

**31** - Errentariak, azpierrentariak, lagapen-hartzaileak edo onuradunak etxebizitza erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmenagatik guztira jaso den zenbatekoa adieraziko da.

### GASTUAK

Honako hauek jarriko dira gastu kengarritzat:

**32** - **Hobaria**: ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen gainean %20ko hobaria aplikatuko da.
Errentamendu kontratuak 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindakoak badira eta kontratuaren errenta berrikusteko eskubiderik ez badute Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24 29/2004 Legeak bigarren xedapen iragankorraren 11. apartatuko 7. erregelan ezarritakoa aplikatuta, %50eko hobaria aplikatuko da ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen gainean.

**33** - **Interesak**: etekinen sorburu diren ondasunak, eskubideak edo erabilera nahiz gozamen ahalmenak erosi, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesak, eta gainerako finantzaketa gastuak.

**34** - **Gastuen batura**: 32 + 33
Hobariaren eta interesen baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

**35** - **Etekin garbia**: 31 - 34. Etekin osoa ken gastu guztien batura jarriko da.

**37** - **Etekin egozgarria**: 35 x 36. Etekin garbia zergadunaren **titularitate portzentajearekin** biderkatuz lortuko da.
37 laukietan adierazitako etekin egozgarrien batura 38 laukian jarriko da, eta 1. likidazio orriko 47 laukira eramango da gero.

| | IFZ | 3. eranskina 109 PFEZ | Kapital higigarriaren etekinak | *8400100822012* |
|---|---|---|---|---|

| | | Entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak (salbuetsitako **dibidendu eta mozkin-partaidetzak**) | | | Entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekin salbuetsi gabeak, kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako etekinak, eta 10/2006 F. Arauaren 39. artikulo etekinak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | |
| 02 | Etekinaren gakoa | | | | | | | | |
| 03 | Etekin osoa | | | | | | | | |
| 04 | Atxikipena | | | | | | | | |
| 05 | Titularitate portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | Guztira |
| 06 | Etekin egozgarria ( 03 x 05 ) | | | | | | | | 09 |
| 07 | Atxikipen egozgarria ( 04 x 05 ) | | | | | | | | 10 |
| 08 | Etekin negatiborik ez integratzea 38.3 art.ko azken paragrafoa aplikatzen bada (jarri “X”) | | | | | | | | |

**Kapital higigarriaren beste etekin batzuk, oinarri ezargarri orokorren sartzekoa**

| | | %100eko integrazioa edo %100etik beherakoa | | | | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 11 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | |
| 12 | Etekinaren gakoa | | | | | | | | |
| 13 | Etekinak | | | | | | | | |
| 14 | Sorreraldia | | | | | | | | |
| 15 | Integrazio portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | |
| 16 | Etekin osoa ( 13 edo 13 x 15 ) | | | | | | | | |
| 17 | Gastu kengarriak | | | | | | | | |
| 18 | Etekin garbia ( 16 – 17 ) | | | | | | | | |
| 19 | Atxikipena | | | | | | | | |
| 20 | Titularitate portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | Guztira |
| 21 | Etekin egozgarria ( 18 x 20 ) | | | | | | | | 23 |
| 22 | Atxikipen egozgarria ( 19 x 20 ) | | | | | | | | 24 |

| | IFZ | 3. eranskina<br>109 PFEZ | Kapital higigarriaren etekinak | *8400100822012* |
|---|---|---|---|---|

| | Entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak (salbuetsitako **dibidendu eta mozkin-partaidetzak**) | | | | Entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekin salbuetsi gabeak, kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako etekinak, eta 10/2006 F. Arauaren 39. artikulo etekinak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | |
| 02 | Etekinaren gakoa | | | | | | | | |
| 03 | Etekin osoa | | | | | | | | |
| 04 | Atxikipena | | | | | | | | |
| 05 | Titularitate portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | Guztira |
| 06 | Etekin egozgarria ( 03 x 05 ) | | | | | | | | 09 |
| 07 | Atxikipen egozgarria ( 04 x 05 ) | | | | | | | | 10 |
| 08 | Etekin negatiborik ez integratzea 38.3 art.ko azken paragrafoa aplikatzen bada (jarri "X") | | | | | | | | |

**Kapital higigarriaren beste etekin batzuk, oinarri ezargarri orokorren sartzekoa**

| | | %100eko integrazioa edo %100etik beherakoa | | | | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 11 | Jasotzailearen gakoa | | | | | | | | |
| 12 | Etekinaren gakoa | | | | | | | | |
| 13 | Etekinak | | | | | | | | |
| 14 | Sorreraldia | | | | | | | | |
| 15 | Integrazio portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | |
| 16 | Etekin osoa ( 13 edo 13 x 15 ) | | | | | | | | |
| 17 | Gastu kengarriak | | | | | | | | |
| 18 | Etekin garbia ( 16 – 17 ) | | | | | | | | |
| 19 | Atxikipena | | | | | | | | |
| 20 | Titularitate portzentajea | % | % | % | % | % | % | % | Guztira |
| 21 | Etekin egozgarria ( 18 x 20 ) | | | | | | | | 23 |
| 22 | Atxikipen egozgarria ( 19 x 20 ) | | | | | | | | 24 |

*Inprimaki honetan idazten diren datuak Foru Ogasunaren fitxategi informatikoetan gordeko dira zerga helburuetarako, 15/1999 Lege Organikoak esandako eran. Errotaburu pasealekua 2, Donostia.



## NOLA BETE ERANSKINA

Eranskin hau KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK jaso dituzten zergadunek beteko dute. Idazmakinaz edo boligrafoz beteko da, gainazal gogor baten gainean idatziz eta letra larriak erabiliz.
Kapital higigarriaren etekin kopuru jakin bat adierazteko prestatu da eranskina. Beraz, zergadunak etekin gehiago izan baditu, behar adina inprimaki aurkeztuko ditu.
Kapital higigarriaren etekin bakoitzeko zutabe bana beteko da, jarraian azaltzen diren datuak adieraziz.

Kapital higigarriaren etekinak zergadunei egotziko zaizkie baldin eta etekin horien sorburu diren ondare elementuen, hau da, ondasun edo eskubideen, titularrak beraiek badira Ondarearen gaineko Zergaren foru arauak 7. artikuluan dioenaren arabera.

## ENTITATEEN FONDO PROPIOETAN PARTE HARTZEAGATIK LORTUTAKO ETEKINAK (SALBUETSITAKO DIBIDENDU ETA MOZKIN-PARTAIDETZAK)

### DATU OROKORRAK

01 - **Jasotzailearen gakoa:** "A" jarriko da jasotzailea aitortzailea denean, "E" ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna denean, eta "S1", "S2"..... mota honetako etekinak lortu dituena adingabeko seme-alaba denean.

### ETEKIN GARBIA

03 - **Etekin osoa:** lortu den etekin osoa jarriko da.
06 - **Etekin egozgarria:** 03 x 05. Etekin garbia zergadunaren **titularitate portzentajearekin** biderkatuz lortuko da.
06 laukietan adierazitako etekin egozgarrien batura 09 laukian jarriko da, eta 1. likidazio orriko 48 laukira eramango da gero.

### ATXIKIPENAK

04 - **Atxikipena:** egindako atxikipena jarriko da.
07 - **Atxikipen egozgarria:** 04 x 05. Egindako atxikipena zergadunaren **titularitate portzentajearekin** biderkatuz lortuko da.
07 laukietan adierazitako atxikipen egozgarrien batura 10 laukian jarriko da, eta 3. likidazio orriko 112 laukira eramango da gero, 24 laukian adierazitako zenbatekoarekin batu ondoren, hala badagokio.

## ENTITATEEN FONDO PROPIOETAN PARTE HARTZEAGATIK LORTUTAKO ETEKIN SALBUETSI GABEAK, KAPITAL PROPIOAK HIRUGARRENEI LAGATZEAGATIK LORTUTAKO ETEKINAK, ETA 10/2006 F. ARAUAREN 39. ARTIKULUKO ETEKINAK

### DATU OROKORRAK

01 - **Jasotzailearen gakoa:** "A" jarriko da jasotzailea aitortzailea denean, "E" ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna denean, eta "S1", "S2"..... mota honetako etekinak lortu dituena adingabeko seme-alaba denean.
02 - **Etekinaren gakoa:** gako hauetako bat jarriko da, etekin motaren arabera:

| | |
|---|---|
| A | Kontuen interesak. |
| B | Obligazio hobarituen interesak. |
| C | Beste aktibo finantzario batzuen interesak. |
| D | Aktibo finantzarioen eskualdaketa. |
| E | Letrak eta atxikipenik gabeko beste batzuk. |
| F | Bizitza eta elbarritasun aseguruak nahiz kapitalizazio eragiketak. |
| I | Kapitalen ezarpenagatik lortutako errentak. |
| K | Fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekin salbuetsi gabeak. |

### ETEKIN GARBIA

03 - **Etekin garbia**: lortutako etekin osoa jarriko da.
06 - **Etekin egozgarria**: 03 x 05. Etekin garbia zergadunaren **titularitate portzentajearekin** biderkatuz lortuko da.
06 laukietan adierazitako etekin egozgarrien batura 09 laukian jarriko da, eta 1. likidazio orriko 48 laukira eramango da gero.

### ATXIKIPENAK

04 - **Atxikipena**: egindako atxikipena jarriko da.
07 - **Atxikipen egozgarria**: 04 x 05. Egindako atxikipena zergadunaren titularitate portzentajearekin biderkatuz lortuko da. 07 laukietan adierazitako atxikipen egozgarrien batura 10 laukian jarriko da, eta 3. likidazio orriko 112 laukira eramango da gero, 24 laukian adierazitako zenbatekoarekin batu ondoren, hala badagokio.
Aktibo finantzarioen eskualdaketatik datozen etekin negatiboen kasuan, 08 laukian "X" jarriko da baldin eta zergadunak aktibo finantzario homogeneoak eskuratu baditu eskualdaketa egin aurreko edo egin ondorengo 2 hilabeteetan. Horrelakoetan, etekin horiek ez dira sartu behar sortu diren ekitaldian; ondarean dauden aktibo finantzarioak eskualdatzen diren heinean integratuko dira. Etekin negatiboak integratzea zilegi denean, 08 laukian zein ekitalditik datozen adieraziko da.

